

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUROPAR BATASUNA. EUROPAREN INTEGRAZIO PROZESUAREN IKUSPEGI OROKORRA

Egilea
Asier García Lupiola

**EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN
ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko
Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Aurkibidea

Aurkezpena.....	3
Laburdurak.....	4
I. Europaren “batasunaren” ideia historian zehar.....	5
II. Europaren integrazio prozesua: Europako Erkidegoak (1950-1990).....	11
1. Bigarren Mundu Gerraren osteko egoera.....	11
2. Hazkunde ekonomikoa (1950-1973).....	13
3. Europaren integrazio prozesuaren ideia.....	15
4. Europako Erkidegoen sorrera, hasierako bilakaera eta lehen zabaltzea.....	16
5. 1970.eko hamarkadako krisia.....	21
6. Integrazio prozesuaren moteltzea eta Europako Agiri Bakuna.....	23
III. Europaren integrazio prozesua: Europar Batasuna (1990-2020).....	28
1. Bloke komunistaren desagitea eta globalizazioa.....	28
2. Maastrichteko Ituna: Europar Batasuna.....	30
3. Amsterdameko Ituna eta Nizako Ituna.....	33
4. Hazkunde ekonomikoa (1990-2007).....	34
5. Ekialderako zabaltzea, Europako Konstituzioa eta Lisboako Ituna.....	36
6. Krisi ekonomiko berria (2008-2014).....	40
7. Egungo egoera.....	43
IV. Europar Batasunaren helburuak, antolaketa eta zuzenbidea.....	49
1. Helburuak eta balioak.....	49
2. Eskumenak eta politikak.....	51
3. Erakunde antolaketa.....	53
4. Zuzenbidea.....	58

V. Barne merkatua eta Ekonomia eta Diru Batasuna	61
1. Barne-merkatua.....	61
2. Salgaien zirkulazio askea.....	62
3. Langileen zirkulazio askea.....	63
4. Egoitza kokatzeko eskubidea eta zerbitzuak eskaintzeko askatasuna.....	65
5. Kapitalen zirkulazio askea.....	67
6. Ekonomia eta Diru Batasuna.....	68
VI. Europako herritartasuna	72
VII. Europar Batasunarekin lotutako Europako beste erakundeak	75
1. Europako Esparru Ekonomikoa.....	75
2. Schengen Eremua.....	76
3. Europa Erdialdeko Merkataritza Askeko Hitzarmena.....	77
Bibliografia	79

Aurkezpena

Ikasmaterial hau Bizkaiko Esperientzia Gelen ikasle euskaldunengan pentsatuz prestatu da. Hain zuzen ere, Giza Zientzien Unibertsitate Tituluaren *Historia de la integración europea. La Unión Europea* irakasgaiarentzako euskarazko ikasmaterial gisa garatu da.

Hala ere, unibertsitate-gradu askotako irakasgaietan Europar Batasuna aztertzen da: sakonki Zuzenbidean; ikuspuntu ekonomiko batetik enpresa eta ekonomia arloko graduetan; ikuspegi orokorra lortu nahian gizarte zientzietako beste zenbait gradutan. Kontutan izanik euskarazko testurik ia ez dagoela, ikasmaterial hau aipatutako azken gradu horietan ikasmaterial orokor gisa erabil daiteke. Bestalde, lehenengo bi kasuetan ere erabilgarria izan daiteke, gaira hurbiltzeko helburuarekin oinarritzko ikuspegia lortzeko tresna gisa, behintzat.

Ikasmaterial honen helburua Europaren integrazio prozesuaren eta eguneko Europar Batasunaren ikuspegi orokorra eskaintzea da. Alde batetik, lehenengo hiru atalek deskribapen kronologikoa jasotzen dute, Europako lurraldeen batasunaren ideiarri buruzko laburpen batetik hasita, eta 1950eko hamarkadan martxan jarritako Europaren integrazio prozesuaren bilakaera aztertuz bigarren eta hirugarren ataletan, betiere nazioarteko testuingurua kontutan hartuta. Bestalde, hurrengo hiru gaietan, Europar Batasuna bera aztertzen da: helburuak, antolaketa orokorra eta zuzenbidea; arlo ekonomikoa (merkatu batua eta ekonomia eta diru batasuna); eta Europako hiritartasuna. Azkenik, Europar Batasunarekin lotura estua duten beste nazioarteko erakunde batzuk aurkezten dira.

Bibliografian, aipatutako edukia prestatzeko erabili diren iturriak adierazten dira: gaiaren inguruko gaztelaniazko eskuliburuak eta euskaraz aurkitu daitezkeen dokumentuak. Irudien eta taulen kasuan, bakoitzaren azpian adierazten da iturria.

Laburdurak

AEB: Amerikako Estatu Batuak

BGNB: Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankua

BMG: Bigarren Mundu Gerra

BPG: barne produktu gordina

BRIC: Brasil, Errusia, India eta Txina

BZES: Banku Zentralen Europako Sistema

EAB: Europako Agiri Bakuna

EAAE: Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa

EB: Europar Batasuna

EBI: Europar Batasunaren Ituna

EBFI: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna

EBZ: Europako Banku Zentralea

ECU: Europako Kontu Unitatea (ingelesezko sigletan)

EDB: Ekonomia eta Diru Batasuna

EDS: Europako Diru Sistema

EEE: Europako Erkidego Ekonomikoa

EFTA: Europako Merkataritza Askeko Ituna (ingelesezko sigletan)

GATT: Merkataritzari eta Muga Zergei buruzko Akordio Orokorra (ingelesezko sigletan)

GGI: giza garapenaren indizea

IAEE: Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoa

MME: Merkataritzaren Mundu Erakundea

NDF: Nazioarteko Diru Funtza

SESB: Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna

I. EUROPAREN “BATASUNAREN” IDEIA HISTORIAN ZEHAR

Historian zehar oso kasu gutxitan agertu dira Europa osotzen duten lurraldeak batuta eta kasu horietan lurralde horiek ez zuten Europa osoa barneratzen. Gainera, nolabaiteko batasuna egon den kasuetan, ezaugarri komuna izan da batasun hori armen bidez gertatu zela, hau da, Estatu batek edo zibilizazio batek besteekiko duen menderatze-boterean oinarritutako inperioa zelako.

Hona hemen gertatu izan diren kasu adierazgarrienak eta Europaren batasunaren ideia inguruko proposamenak:

a) Greziar zibilizazioa


Europaren eta Mendebaldeko zibilizazioaren sorlekua. Hala ere, Grezia Klasikoa bere gorenean zegoenean, Alexandro Handiak batutako lurralde gehienak ez ziren Europakoak, Asiakoak baizik (K.a. 323. urtean).



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=642043>

b) Erromako Errepublika eta Inperioa

Kontinentearen batasunaren lehen adibide handia da. Europako lurralde askoren batasun kasu horren alderdirik deigarriena da Erromak antolamendu juridiko bateratua ezarri zuela lurralde guztientzat. Horren arabera, inperioko herritar ziren guztientzat eskubideak onartzen zituen, haien jatorria edozein izanik ere. Hedapenik handiena 117. urtean izan zuen.




Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=19625326>

Europar Batasuna baino lehen, Europako lurralde/herrialdeen artean batasun geografikoaz gain batasun juridikoa ere egon den kasu bakarra da.

d) *Erromatar-Germaniar Inperio Sakratua*

Europako lurraldeak bateratzeko argudio gisa kristautasunaren hedapena politikoki erabili zuen baina menderatze-boterearen bitartez.

- Lehen kasua: Karlomagnoaren inperioa, berez, frankoen erresuma zen. 962an Oton I.ak ezarri zuen formalki Inperioa.
- Hedadura maximoa (lurraldeen eta ordenamendu juridikoen aniztasun nabariarekin): Karlos V.aren inperioa (1520-1558), non Erromatar-Germaniar Inperio Sakratua eta Gaztela eta Aragoiko koroak batzen baitziren.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=106952839>

30 urteko gerraren ondoren (1618-1648), Westfaliako Bakeak 300 estatu sortu zituen (erresumak, dukerriak, printzerriak, konderrriak, eta abar). Erromatar-Germaniar Inperio Sakratuak 1806 urte arte iraun zuen; Frantzisko II.ak desegin zuen, Napoleonek enperadore titulua eskuratu ez zezan.

e) Europa kristau batua etsai musulmanaren aurka


1648an Otomandar Inperioak Erromatar-Germaniar Inperioak berak baino Europako askoz lurralde handiagoa batu zuen bere agindupean.

Otomandar Inperioa Europan egoteak erresuma kristauen batasunaren ideia bultzatu zuen, etsai komun musulmanaren aurrean batera jarduteko.

Horri buruz, XIV. eta XVII. mendeen artean, honako ideia hauek adierazi zituzten zenbait intelektualek:

- Dante Aligherik Europaren batasuna eta kristauen batasuna parekatu zituen;
- Jorge Podiebradek Europako konfederazio kristaua proposatu zuen;
- Rotterdameko Erasmok, Juan Luis Vivesek eta Gottfried Leinizek Europaren batasun kristaua defendatzen zuten, turkiarrei aurre egiteko;
- Sullyko Dukeak Europako lurraldeen antolaketa berria eskatu zuen, bakea lortzeko eta turkiarren aurka borrokatzeko.

1657tik aurrera Otomandar Inperioaren hedapena murriztuz joan zen.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=35266134>

f) Bakea lortzeko Europaren batasunaren ideia


Aurreko ideiarene bilakaera da. XVIII. mendeko intelektualek eta filosofoek alde batera uzten dute Europaren batasunaren alderdi erlijioso eta ardatz gisa hartzen dute Europako herrialdeen artean bakea lortzeko beharra.

Honako ideia hauek adierazi zituzten:

- William Pennek Europako estatuene federazioa proposatu zuen;
- Saint-Pierreko Abadeak eta Jean-Jaques Rousseauk Europaren batasunaren helburuak bakea eta ongizatea direla adierazi zuten;
- Montesquieuko Baroiak Europa nazio bat dela adierazi zuen; ideia horrek Europaren batasuna errazten du, baita eskatu ere.

g) Napoleonen inperioa

Napoleon Bonaparteren inperioa Europako kontinente osoa (Errusia barne) bateratzeko ahalegina izan zen. Haren magnitudea hain izan zen handia, non Afrikako iparraldea hartzen baitzuen.



Napoleon Europa batzen saiatu zen Frantziako Iraultzaren bertuteak orokortzeko (herritarren askatasunak eta eskubideak monarkia absolutistek erabilitako boterearen aurrean). Ordea, askatasuna zabaltzeko armen indarra erabili zuen eta lurraldeak inbaditu zituen; azken finean, Frantziarekiko menpekotasunezko harremana zuten estatu sateliteak antolatu zituen.

h) Europako federazioaren ideia

Gerra napoleonikoak, Europa zentrolean izandakoak eta, azkenik, Frantzia eta Prusia artean (1870) izandako gerraren ondoren, aurreko ideia indartu egiten da (Europaren batasuna bakea lortzeko helburuarekin) eta eduki politikoa ematen zaio.

Horrela, XIX. mendearen bigarren erdian, hainbat egilek Europako federazio bat antolatzeko aukera defendatu zuten, hortik aurrera Europako bateratze prozesuarentzako erreferente izango den ideia:

- Saint Simoneko Kondeak Europako Estatu Batuen proiektua aurkeztu zuen;
- Emmanuel Kant, Victor Hugo eta Giuseppe Manzini, Europako herrialdeek osotutako federazio baten alde agertu ziren.


Hala ere, XX. mendearen hasieran Lehen Mundu Gerra gertatzen da, berez, Europako herrialdeen arteko gerra.

Horren ondoren, Coudenhove-Kalergi politikariak Paneuroparen ideia aurkeztu zuen 1923an, Europa osoa hartzen zuen estatua eratzearen aldekoa.

i) III. Reich

Lehen Mundu Gerrari bukaera jarri zion Versaillesko Itunaren bitartez Nazioen Elkartea erakundea sortu zen. Beraren bitartez munduan bakea mantentzeko helburua egikaritu nahi zen baina porrotak arrakastak baino gehiago izan ziren. Nazioen Elkarateak ez zuen Alemania kide gisa onartu eta hor dago Bigarren Mundu Gerraren arrazoietakoa bat.

Europa potentzia handi baten boterearen pean bateratzea helburu gisa izan duen azken inperioa Alemaniako III. Reich-a izan zen. Adolf Hitlerren eta bere mugimendu naziaren ametsak Bigarren Mundu Gerra sorrarazi zuen, historian ezagutzen den gerrarik handiena. Alemania nazia Europako lurraldeen hiru laurden kontrolatzera heldu zen; batzuk zuzenean kontrolatzen zituen eta beste batzuen kasuan estatu sateliteak eratu zituen. Hala ere, horren guztiaren ondorioa Europa beraren suntsipena izan zen.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=27127904>

II. EUROPAREN INTEGRAZIO PROZESUA: **EUROPAKO ERKIDEGOAK (1950-1990)**

1. Bigarren Mundu Gerraren osteko egoera

Bigarren Mundu Gerrak (BMG), gizakiak ezagutu duen gatazka armaturik garrantzitsuenak, sei urtean iraun zuen —1939ko irailaren 1etik 1945eko irailaren 2ra— eta garai hartako munduko biztanleriaren % 2 hil zen (60 milioi pertsona), gehienak zibilak. Aurrez aurre bi talde egon ziren: Ardatzeko potentziak (Alemania nazia, Italia faxista eta Japoniako inperioa) eta aliatuak (Erresuma Batua eta Frantzia izan ziren buru hasiera batean; geroago, Amerikako Estatu Batuak —AEB— eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna —SESB—). Aliatuek irabazi zuten. 1945ean San Frantziskoko Konferentzia egin zen, eta Nazio Batuen Gutuna onartu zen bertan, aho batez.

BMGren ostean, bi estatuk izan zuten botere handiena nazioarteko harremanetan eragiteko; *superpotentzia* maila zeukaten biek ere: AEB eta SESB. Bakoitzak bere sistema politiko eta ekonomikoa zuen, bata bestearen guztiz kontrakoa. Horrek bien arteko borroka zekarren, biek mundua kontrolatu nahi zutelako, ahalik eta estatu gehien bakoitzak gidatzen zuen blokean kokatuz. Komunismoa zuten aurkari AEBk eta kapitalismoa SESBek: *Gerra Hotza* izena hartu zuen egoera horrek.

Testuinguru horretan Europako herrialdeek oso egoera ekonomiko larrian zeuden, baliabideen falta nabaria zen, eta berreraikuntzarako beharrak, berriz, ugari ziren. Kontinentea bi taldetan banatuta zegoen, Mendebaldea kapitalista baitzen eta Ekialdeko herrialdeak SESBen kontrol pean baitzeuden.

Hori dela eta, Europan sortu ziren lehenengo erakundeak defentsa arloan kokatu ziren. 1947ko martxoan Frantziak eta Erresuma Batuak Dunkerque-ko Ituna sinatu zuten. SESBen aurkako mesfidantza handituz joan zen eta horren ondorioz Belgika, Herbehereak eta Luxenburgo batu ziren; bost herrialdeek Bruselako Ituna sinatu eta Mendebaldeko Europar Batasuna erakundea sortu zuten. Gaitasun militar mugatua zutenez, 1949an bost

herrialde horiek AEBk, Kanadak, Islandiak, Portugalek, Danimarkak, Norvegiak eta Italiak Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea sortu zuten. Bere aldetik, 1955ean eta SESBen agindu pean Varsoviako Hitzarmena sortu zen.

Lankidetzaren ekonomikoaren arloan, Bretton Woods sistemaren sorrera aipatu beharra dago. 1944. urtean, gerra amaitu aurretik, Bretton Woods-eko Nazioarteko Finantza Konferentzia egin zen (New Hampshire, AEB). Helburua, gerra osteko nazioarteko ekonomia antolatzea zen. Bretton Woodsen finkatu ziren etorkizunean garrantzi handiko izango ziren bi erakunde ekonomikoen hastapenak: Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Berreraikuntza eta Garapenerako Nazioarteko Bankua (BGNB), geroago Munduko Bankua izango zena. Aldi berean, Merkataritzari eta Muga Zergei buruzko Akordio Orokorra (ingelesezko siglekin ezagutua, GATT) izango zenaren oinarriak ere finkatu ziren. Hiru erakundeak Nazio Batuen erakundearen antolaketan kokatu ziren. Erakunde horien bidez, nazioarteko ekonomia-sistema egonkortu egin zen.

Herrialdeek ekonomiak martxan jartzeko tresna baliagarri gisa sortu zen NDF, nazioarteko ordainketak eta nazioarteko merkataritza-harremanak errazteko. Zehazki, bere helburuak hauexek dira: nazioarteko diru-sistemaren arauak ezartzea eta mundu-mailako diru-lankidetzaren bultzatzea; moneten arteko aldaketa-oreka lortzea, nazioarteko diru-transferentzien sistema orekatua eta egonkorra errazteko; nazioarteko merkataritza bultzatzea eta horren garapen orekatua lortzea. Horretarako, NDFk herrialdeei finantza-laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzen die.

Gerraren ondorioz deuseztatuko herrialdeen berreraikuntza finantzatzeko sortu zen BGNB. Bestalde, BGNBk bazuen bigarren helburu bat ere, Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako garapen bidean zeuden herrialdeen garapen ekonomikoa bultzatzea, hain zuzen ere. Hala, 1950eko hamarkadatik aurrera, garapen bidean dauden herrialdeentzako laguntzan oinarritu da erakundearen jardura.

GATT 1940ko hamarkadaren azkenaldian eratu zen, Londresen, Genevan eta Habanan izandako bileren bidez (1946-1948). Nazioarteko erakunde horren helbururik behinena zen merkataritza-harremanetan librekanbismoa zabaltzea ahalik eta gehien. Horretarako, esportazioak eta

inportazioak erraztu nahi zituen, eta murriztapen kuantitatiboak eta murrizketak gaitzesten hasi zen, *ad valorem* delako muga-zergak onartuz bakarrik.

Bestalde, 1947an AEBk Marshall Plana martxan jarri zuten, Europako berreraikuntzarako laguntza-programa; ekipamendu-ondasun, lehengai edota sostengu teknikoen ekarpenen bidez gauzatu zen. Kudeaketa lanak aurrera eramateko, laguntza jasotzen zuten herrialdeek Europako Ekonomia Lankidetzarako Erakundea eratu zuten. 1961ean, erakunde honek helburuak moldatu zituen eta, horren ondorioz, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakunde bihurtu zen. Munduko herrialde kapitalista aurreratuenak batu zituen (Kanada, Japonia, Australia eta beste batzuk kide bihurtu ziren), politika makroekonomikoan akordioak bilatzeko eta, halaber, azpigaratutako herrialdeetara bideratutako laguntza koordinatzeko.

2. Hazkunde ekonomikoa (1950-1973)

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, ezohiko hazkunde historikoa izan zen Mendebaldeko ekonomian. Herrialde garatuetan, barne produktu gordinaren (BPG) batez besteko hazkundea % 4 eta % 5 artean kokatu zen 1950 eta 1973 urteen artean; bikoiztu egin zen aurreko sasoiarako hazkundea. Europaren integrazio prozesuaren martxan jartzea testuinguru ekonomiko positibo horretan gertatu zen.

Hogeita hiru urte horietan zehar izandako etengabeko ekonomia-hazkundeari azalpena emateko, askotariko zergatiak dauzkagu; hona hemen horietako batzuk:

- Inputen kantitatea eta kalitatea gehitu egin zen; alegia, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan merkeak izan ziren erregaiak eta lehengaiak.
- Hirugarren industria-iraultza. Sektore berri hauetan oinarritu zen: informatika, mikroelektronika, lasterketa espaziala, telekomunikazioa eta abar.

- Ekonomiaren irekiera-maila altuagoa, nazioarteko merkataritzaren ezohiko zabalkundearekin batera. Horren arrazoia izan zen aipatutako nazioarteko erakundeen eratzea (NDF, BGNB, GATT).
- *Keynesianismoaren* hasiera eta garapena. Ekonomiaren esparruan, estatuaren parte-hartzea handitu zen, enpresa publikoaren tamaina hazi egin zen eta zenbait sektoretan enpresa askoren nazionalizazioak orokortu ziren. Ekonomia-garapenaren bultzatzaile nagusia estatua bera izan behar zela uste zen eta gastu publikoa asko gehitu zen, azpiegiturak eta produkzio zuzenak eskuratzeko asmoz bideraturikoak. Gainera, beharrezkoa izanik, gastu publikoa handitzen zen defizitera iritsi arren, enplegu osoa lortzeko helburuarekin. Hori guztia, merkatu libreko sistema baten barnean egin zen, baina, era berean, ekonomia misto batera joz, erlatiboki planifikaturiko hazkunde ekonomikoaren bidez.
- Errentak gehitzearen ondorioz, kontsumo pribatua biziki handitu zen. Jakina, 1950eko hamarkadatik aurrera, Mendebaldeko Europan, merkatu masiboa agertu zen estandarizaturiko kontsumo-ondasun iraunkorrenzat (auto pribatuak, etxetresna elektrikoak, eta abar).
- Ongizatearen estatua agertu eta garatu zen. Sistema berri horren arabera, estatuaren esku geratu ziren erabat aurreko zenbait funtzio pribatu edo erdipribatu; adibidez, irakaskuntzarako, langabeziarako, gaixotasunerako eta zahartzarorako beharrezkoak ziren prestazioak eta laguntzak.
- Etengabeko inbertsio-maila altu mantendu zen. BPGarekiko inbertsio-mailaren tasa % 7 eta % 10 artean kokatu zen.
- Egoera soziosindikala egonkorra eta lasaia zen. Lan-harremanen esparruan adostasun-maila nabaria lortu zen gerraostean. Egoera horri oso langabezia-maila baxuak —eskuarki, % 3 baino baxuagoa— lagundu zion.
- Eskulanaren eskaintza asko hazi zen, honako arrazoi hauek zirela-eta: gerraosteko *baby boom* deritzona; emakumea lan-merkatuan tinko sartzea; landa-eremutik hirietara orokorturiko emigrazioa; Europako periferiatik herrialde industrializatueterako immigrazio handia.

- Azkenik oso datu garrantzitsua: inflazio-maila erlatiboki urri mantendu zen. Hala da: 1950 eta 1973 urteen artean, prezioen igoera-maila urtero % 4 izan zen (BPGaren igoera baino txikiagoa).

3. Europaren integrazio prozesuaren ideia

Bigarren Mundu Gerra osteko berehalako egoera kontutan izanik ere, Europako mendebaldean bereziki ideia bat orokortu zen: gerra sorrarazi zuten akatsak ekiditeko Europako herrialdeek batuta egin behar zuten aurrera. Ideia horren martxan jartzeak Europan nazioarteko erakunde ezberdinen sorrera ekarri zuen, baita Europako herrien batasuna eskatzen zuten gizarte-mugimenduen ere. Sektore ugarietan horrelako mugimenduak sortu ziren, hala nola, alderdi politikoen artean, sindikatuen artean, unibertsitateetan, intelektualen artean, artisten artean, eta abar.: Europako Federalisten Batasuna, Europako Mugimendu Federala, Europako Estatu Batuen aldeko Mugimendu Sozialista, Europako Legebiltzar Batasuna, eta abar. Guztien koordinaketa aurrera eramateko Kongresuak eratu ziren eta 1948an Hagan egindakoan, elkarte europazale guztien federazioa eratu zen: Europako Mugimendua.

Europaren batasuna lortzeko ideia orokorra bazen ere, hori praktikan jartzeko bidea ez zegoen hain argi. Herrialdeetako agintariek eta politikariek bazekiten ideia hori garatzeko estatuen arteko harremanak estutu eta sakondu behar zirela, ordea, eztabaida zegoen zein bide jarraitzearen inguruan: lankidetzak edo integrazioa.

Lankidetzak estatuen subiranotasuna errespetatzea eta mantentzea dakar. Lankidetzan oinarritutako nazioarteko erakundea sortzen denean erabakitzeke ahalmenik gabeko erakundea da, botere hori estatuen eskuetan mantentzen baita. Hau da, erakundea helburu batekin sortzen da baina hori lortzeko beharrezko erabakiak erakundea osotzen duten estatuak hartzen dituzte. Bide hori bereziki anglosaxoiek eta eskandinaviarrek defendatu zuten, eta aurretik aipatutako erakundearen sorrera gidatu zuen. Gobernu arteko

lankidetzaz gaur egun dauden nazioarteko erakunde gehienak sortzeko jarraitutako bidea da, eta Nazio Batuen Erakundea da bere erakusle handiena.

Integrazioak, berriz, estatuen subiranotasunaren lagapen partziala suposatzen du, beren eskumen batzuk (beren independentzia edo botere politikoaren eremuak) nazioz gaindiko erakunde bati transferitzen baitira, eta arlo horietan erakunde horrek eskumen eraginkorrak jasotzen ditu. Egia da estatuek erakundea osatzen duten organoetako baten bidez parte hartzen dutela erakundearen erabakien eraketan baina erakundearen erabakiak betebeharrekoak dira estatu kide guztientzat (baita erabakiaren kontra agertu diren estatu kideen kasuan). Bide honen alde alemaniarrek, frantsesak, belgikarrek eta holandarrek agertu ziren.

Integrazioaren bideari jarraitzen zion erakunde bat bazegoen, justu Europako bateratze prozesuaren aurrekaria dena, Benelux, hain zuzen ere. BMG bukatu baino lehen, Belgikak, Herbehereek eta Luxenburgok erabaki zuten gerra bukatu eta ostean elkarlanean arituko zirela berreraikitze prozesua martxan jartzeko. Hiru herrialdeek hitzarmen ugari sinatu zituzten arlo hauetan: moneta politika (1943), aduana batasuna (1944), merkataritza politika komuna (1950), kapitalen zirkulazio askea (1954) eta langileen zirkulazio askea (1956). Beneluxek ekarri zuen ereduari jarraitu zitzaion Europaren batasunaren ideia garatzeko, integrazioaren bideari, hain zuzen ere.

4. Europako Erkidegoen sorrera, hasierako bilakaera eta lehen zabaltzea

Europaren bateratze-prozesuaren abiapuntua Schuman Adierazpena izan zen, Jean Monnet frantziar politikariak egindako eta 1950eko maiatzaren 9an Robert Schuman Frantziako atzerri-ministroak aurkeztutako proposamen politikoa. Hiru beharretan antolatutako proposamena zen:

- Europako industria siderurgikoa antolatzea;
- Frantzia eta Alemaniaren arteko harremanak oinarri berrien gainean arautzea;
- Europa osoaren bateratzea bultzatzea.

Proposamen horri baiezko erantzuna eman zioten Frantziak, Alemaniak, Italiak eta Beneluxeko hiru estatu kideek. 1951ko apirilaren 18an Parisen sinatu zuten *Ikatz eta Altzairuaren Europako Erkidegoa* (IAEE) eratzen zuen ituna. 1952ko uztailaren 25ean indarrean sartu zen. Europaren integrazio prozesuari hasiera eman zion erakunde honen helburua zen sei estatu kideen artean burdingintza sektorean merkatu batua sortzea.

IAEE arrakastatsua izango zela jakinda, Schuman eta Monnet bezalako beste politikari europazaleek integrazio prozesua betetzeko pauso handiagoak eman ahal zitezkeela ondorioztatu zuten. Horrela, Gerra Hotzak ekar zitzakeen ondorioak kontutan hartuta defentsa eta militar arloan hitzarmenak bultzatu ziren. Frantziako Presidenteak, René Plevenek, Jean Monnetek egindako Pleven Plana aurkeztu zuen 1951n, Defentsarako Europako Erkidegoa sortzeko helburuarekin. Europako gudarostea sortzeaz gain, Europa mailako goreneko politika komuna aurrera eramateko Europako Erkidego Politikoa sortzeko aurrekaria izango litzateke. Ikusten denez, azken helburua ahalik eta lehen batasun politikoa lortzea zen. 1951ko maiatzaren 27an Defentsarako Europako Erkidegoa sortzen duen Ituna sinatu zuten IAEEko sei estatu kideek. Ordea, Frantziako parlamentuak ez zuen Ituna berretsi eta beste herrialdeek erakundea bertan behera uztea erabaki zuten.

Porrot horren ondoren, Europaren integrazio prozesuaren garapenak geldiduna jasan zuen. Hala ere, IAEEk oso era egokian funtzionatzen jarraitu zuen eta horrek 1955ean Beneluxeko hiru herrialdeek proposamen berri bat adieraztea ekarri zuen: Europaren integrazio prozesua arlo ekonomikoan garatzea lehenik eta merkatu batu bat sortzeko pausoak ematea. IAEEko sei estatu kideetako gobernuek eskatu zioten adituen talde bati, Belgikako Kanpo Gaietako ministroa zen Paul Henri Spaaken gidaritzapean, integrazio ekonomikoari buruzko txostena egitea. 1956ko Spaak Txostenaren arabera, Europaren integrazio prozesua garatzeko egoki ikusten zen merkatu batu orokor bat sortzea, baita energia atomikoaren inguruko batasuna ere.

Horrela, sei estatuek beste bi itun sinatu zituzten Erroman 1957ko martxoaren 25ean eta horien ondorioz beste bi erakunde eratu ziren: *Europako*

Ekonomia Erkidegoa (EEE) eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (EAEE). Bi itunak 1958ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

Europako Erkidegoak izaera ekonomikoko erakunde gisa sortu baziren ere, Schuman Planaren filosofiak —Europaren integrazio prozesuaren oinarria, hain zuzen ere— bi helburu bereizten ditu:

- Batasun ekonomikoa: lehenik, estatu kideen merkatu nazionalak merkatu batu batean biltzea dakar, ondoren estatu kideen ekonomia nazionalak ekonomia-eta diru-sistema batu batean biltzeko.
- Batasun politikoa: estatu kideak izaera federala edo konfederala izango duen nazioarteko erakunde politiko batean biltzea dakar, batasun ekonomikoaren ondoren soilik lor daitekeena.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=6884395>

Europako Erkidegoen hasierako urteetan aurrerapauso nabarmenak egin ziren. Gauzak horrela, 1958an nekazaritza-politika batuaren oinarriak ezarri ziren, eta 1962an martxan jarri zen politika hori. Are gehiago, salgaien zirkulazio askea, 1970erako aurreikusitakoa, bi urte lehenago (1968an) lortu zen, eta, horrenbestez, merkataritza askeko gune bat sortu zen sei estatu kideen artean. Horri kanpo muga-zerga gehitu zitzaion.

Europako Erkidegoen funtzionamendua errazteko erabaki logikoak hartu ziren. Erkidego bakoitzak bere erakunde-antolaketa propioa zuen, hirurak berdinak, ondorioz, guztira hamabi erakunde zeuden: hiru kontseilu, hiru batzorde, hiru batzar eta hiru justizia auzitegi. 1965ean estatu kideek Luxenburgoko Ituna sinatu zuten. Horren bidez, erakundeen bat-egitea osotu zuten eta hortik aurrera hiru Erkidegoek erakunde-antolaketa bakarra izan zuten: Kontseilu bat, Batzorde bat, Batzar bat eta Justizia Auzitegi bat. Hortik aurrera EEE Erkidego nabarmenena zela argi gelditu zen, beraz, *Europako Erkidegoa* (singularrean) izena orokortu zen.

Bestalde, Europako Erkidegoetatik kanpo, Erresuma Batuak beste erakunde bat bultzatu zuen: Europako Merkataritza Askeko Ituna (ingelesezko siglen bidez ezagutua, EFTA). 1959an eratu zen; Britainia Handiaz gain, Danimarka, Norvegia, Suedia, Austria, Suitza eta Portugal izan ziren erakunde horren partaideak. Geroago Finlandia, Islandia eta Liechtenstein batu ziren. Europako Erkidegoak baino helburu motelagoak zituen, industria-produktuen zirkulazio askea eratu baitzen soilik.

Bestalde, Europaren integrazio prozesuaren garapenean arazoak egon ziren. Oztopo handienetako bat Frantziaren edo, zehazkiago, Charles De Gaulle presidentearen jarrera izan zen. 1958ko ekainean boterera heldu zenetik, De Gaulle argi eta garbi agertu zen lankidetzaren alde, ez hainbeste integrazioaren alde. Kanpo politikan eta gobernuen arteko lankidetzan oinarritutako estatuen batasuna sortzeko bere proposamena ez zuten onartu gainerako kideek, eta horrek haserrea eragin zion De Gaulleri. Ondorioz, integrazio prozesuaren garapena oztopatu zuen hurrengo urteetan.

Europako Erkidegoen lehen arrakastak ikusita, Erresuma Batuak ez zuen denbora asko behar izan kide izateko eskaera egiteko. Egia da britainiarrak ez zirela integrazioaren aldekoak, eta horregatik EFTA sortu zuten. Hala ere, 1961eko abuztuan Erresuma Batuak Europako Erkidegoetan sartzeko eskaera aurkeztu zuen. Danimarkak, Irlandak eta Norvegiak ere eskaera egin zuten. Dagozkion negoziazioei hasiera eman zitzairen eta lau herrialdeekin batera egin ziren. Hala ere, 1963an Frantziak Erresuma Batuen sarrerari ezezkoa eman zion, De Gaullek ez baitzuen konfiantzarik britainiarrengan; bere ustetan

AEBren aldeko jarrera ideia europazalearekin bat ez zetorren. Negoziazioak lau herrialdeekin batera egin zirenez, Frantziarentzako ezetza laurentzako izan zen praktikan.

Bestalde, Batzordeak Europako Erkidegoen finantza sistemaren moldaketa proposatu zuenean, Frantzia aurka agertu zen. De Gaullek Kontseiluaren batzarretara ez joatea erabaki zuen 1965eko uztailean, beraz, orduetik aurrera ezinezkoa zen erabakirik hartzea (sei herrialdeen ordezkariak parte hartu behar zuten). 1966ko urtarrilean sei estatu kideek adostu zuten erabakiak hartzeko aho batezko sistema mantentzea, IAEEren Itunak gehiengo kualifikatua aurreikusi arren; praktikan beto eskubideari eutsi egin zitzaion.

1967an Erresuma Batuak, Irlandak, Danimarkak eta Norvegiak Europako Erkidegoetako kide izateko eskaera aurkeztu zuten bigarrenez. De Gaulle, berriro ere, Erresuma Batua kide bihurtzearen kontra agertu zen; oraingo honetan, britainiar ekonomiaren ahultasuna eta Erkidegoak soilik merkataritza askeko gune bat bihurtzeko arriskua argudiatu zuen. Hori dela eta, lau herrialdeak Europako Erkidegoetatik kanpo gelditu ziren berriro ere.

Azkenik, De Gaullek Frantziako presidentziazatik dimititu behar izan zuen 1969an, eta horrek integrazio prozesua aurrera egitea erraztu zuen. Hala, urte hartako abenduan, Hagan egindako estatuburuen eta gobernuburuen goibileran erabaki garrantzitsuak hartu ziren: Erresuma Batuarekin, Irlandarekin, Danimarkarekin eta Norvegiarekin negoziazioak bukatzea; finantza sistemaren erreforma; Ekonomia eta Diru Batasunerako plana prestatzea; Batzarraren eskumenak handitzea; eta kanpo gaietan elkarrekin aritzeko Europako lankidetzak politikoa ezartzea.

Europako Erkidegoen lehen zabaltzea 1973ko urtarrilaren 1ean gertatu zen, Erresuma Batua, Danimarka eta Irlanda kide bihurtu zirenean. Norvegiako herriak erreferendumean uko egin zion Europaren integrazio prozesuan parte hartzeari, beraz, Norvegia ez zen kide bihurtu. Lehen zabaltze horren ondorioz, Europaren integrazio prozesua bederatzi estatu kide izatera pasatu zen.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=6884395>

5. 1970eko hamarkadako krisia

1973-1974 urteen inguruan, ekonomia kapitalistaren *urre-aroa* bukatu zen. 1968tik aurrera sistema ahultzen zuten elementuak agertzen hasi ziren. Bakoitzak bere kabuz ez zuen sistema kolokan jartzen baina guztiek batera ahuldu zuten eta azkenean krisialdia ekarri zuten. Hauexek izan ziren:

- Sistemaren zamak, ongizate-estatua hobetzearen ondorioz sorturikoak.
- Lan-harremanen adostasunari amaiera 1968. urtetik aurrera. Ezegonkortze soziala, laborala eta politikoa gertatu zen.
- Soldaten hazkunde altua 1968 eta 1973 urteen artean. Ondorioz, biztanleriaren kontsumorako ahalmena handitu zen; ordea, kontsumoaren eskaria gehitu eta prezioek gora egin zuten ere.
- Lehengaien prezioen igoera 1960ko hamarkadaren azkenalditik eta 1970ekoaren hasieratik. Ordura arte, merkeak izan ziren erregaia eta energia.
- Diru-politikan aldaketak 1968-1969 urteetan. Zenbait dibisa krisialdian sartzean, interes-tipoak igotzen hasi ziren (urtebetean bikoiztu egin ziren).
- Garapen-bidean zeuden zenbait herrialderen oinarritzko industriek eragindako lehia, teknologia ertaina edota baxua erabiliz.

- Bretton Woodsen sistema apurtzea 1971ean. Vietnamgo gerratea finantzatzeko dolarren kopurua gehitu zen eta horrek AEBn defizita eragin zuen. Dolarra nazioarteko finantza sistemaren oinarria zen baina Nixon AEBko presidentek erabaki zuen dolarra sistematik ateratzea eta merkatuetan beste monetak bezala aritzea. Ondorioz, dolarraren balioa % 15 gutxitu zen. Munduko enpresa handi guztiek zeuzkaten erreserbak eta aktiboak dolarretan, beraz, euren erreserbak gutxitu ziren eta horrek izugarritzko kaltea eragin zion munduko ekonomiari.

- Petrolioaren prezioaren igoera. 1973ko urrian, Yom Kippur delako gerratea izan zen (alde batetik, Egipto eta Siria, bestetik, Israel). Nazio Batuek Israelen kontrako erabakirik hartzen ez zutela ikusirik, Arabiar Herrialde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak petrolioaren prezioa izugarri igotzea erabaki zuen (% 400eko igoera), baita esportazioen murrizketa ere (% 25eko gutxitzea). Batean, izugarri garestitu eta murriztu zen Mendebaldeko ekonomiek beren produkzio-sistemarako guztiz beharrezkoa zuten erregaia. 1974ko urtarrilean produkzioa handitu zen baina prezio altua mantendu egin zen.

Krisiaren ondorioak berehala agertu ziren: enpresen etekinak murriztea; inbertsio-tasak jaitea; langabezia gehitzea (% 20tik gora, % 40tik gora gazteen kasuan); inflazioa (estanflazioa ere agertu zen); enpresak ixtea, eta enpresa berrien ezgaitasuna enplegua sortzeko orduan; enpresa publikoen sektorea handitzea, gobernuek euren kargura hartzen baitzituzten zailtasunak zituzten enpresa pribatuak. Hasiera batean, agente sozialak (sindikatuak eta enpresaburuak) eta diru-sistemako agintariak krisialdia laburra izango zelakoan zeuden. Pasibitatea nagusitu zen eta ez zen erabakirik hartzen.

1979an krisiaren bigarren txanda eman zen. Iranen (ordura arte Mendebaldeko aliatua eta petrolio ekoizle handia) gobernu aldaketa gertatu zen Ayatolá Jhomeiniren iraultzaren arrakastaren ondoren. Irango Islamiar Errepublika ezarri zen eta Mendebaldeari petrolio saltzeari utzi zion. Petrolioaren prezioa berriro igo zen eta bikoiztu egin zen.

Krisialdiaren bigarren kolpe hori handia izan zelarik, gobernuek ez zeukaten erreakzionatu beste erremediorik. Beraz, 1980ko hamarkadaren hasieratik, krisialdiari aurre egiteko politika sorta bat eratu zen. Besteak beste,

hori egin zuten Ronald Reagan-ek AEBn eta Margareth Thatcher-ek Erresuma Batuan; ondoren, beste herrialde askotan bide berdintsuei jarraitu zitzaien. Irtenbidea neoliberalismoa izan zen, hau da, keynesianismoa (estatuaren parte-hartze aktiboa ekonomian) bertan behera utzi eta askotariko shock-terapia deflazionistak garatu ziren: esklerosia (ekonomien zurruntasuna) amatzeko asmoz, desarauketa bultzatu zen; interes-tasak igo ziren; gastu publikoa murriztu zen; zergak igo ziren; moneten balio-gutxitzea orokortu zen esportazioak bultzatzeko; ongizate-estatua kolokan jarri zen, baita estatuaren protagonismoa ekonomiaren bultzatzaile gisa ere, eta hasiera eman zitzaion enpresa publikoen pribatizazioari.

Egia esan, politika horien emaitzak, oro har, nahiko arrakastatsuak izan ziren 1980ko hamarkadaren erdialdean Mendebaldeko herrialdeetan. Hobekuntza makromagnitude batzuetan agerian geratu zen: inflazio-tasak beherantz zihozten; defizitak ere beherantz egin zuten; inbertsio-tasa gorantz egin zuten; enpresek berriz etekinak izan zituzten; ekoizpen industrialia handitu zen; kanpo-merkataritzaren indizeak errekuperatu ziren. Hala eta guztiz ere, emaitzak askoz motelagoak lortu ziren langabeziaren eta errenta-banaketaren esparruetan.

6. Integrazio prozesuaren moteltzea eta Europako Agiri Bakuna

1973ko petrolio-krisiak sorrarazitako egoera larriak kanpoaldean eta britainiar gobernu berriaren ezezko jarrerak balaztatu egin zuten batasun-prozesua. Erresuma Batuen jarrerak Frantzia-Alemania ardatza indartu zuten, zeinak aurrera jo baitzuen Europaren integrazio prozesua bultzatuz.

1974an Parisko goi mailako batzarrean erabaki garrantzitsuak hartu ziren Europako Erkidegoen garapenerako, nahiz eta krisiaren ostean martxan jartzeko aurrekusi ziren. Alde batetik, erakunde arloko bi erabaki. Lehenengoa Europar Kontseilua ofizialki eratu zen; ondorioz, gutxienez urtean birritan estatu kideetako estatuburuek eta gobernuburuek elkartu beharra zuten, Erkidegoen zuzendaritza politikoa egikartzeko eta integrazio prozesuaren nondik norakoak

zehazteko, baita kanpo politikaz arduratzeko. Esan denez, organo hau ofizialki eratu zen baina ez zen Erkidegoetako erakunde gisa sortu, bere funtzionamendua lankidetzan oinarritzen baitzen. Bigarren erabakia Batzarra izeneko erakundearen moldaketa izan zen; ordura arte estatu kideetako parlamentu nazionalaletako diputatuen ordezkari osatzen bazen ere, 1979tik aurrera sufragio orokor eta unibertsalez hautatua izatea erabaki zen eta Europako Parlamentua izena eman zitzaion.

Bestalde, Parisko batzarrean Belgikako lehen ministroa zen Leo Tindemansi Europar Batasunari buruzko txostena prestatzea eskatu zitzaion, hain zuzen, integrazio prozesua osatu behar zuen batasun politikoaren zehaztapenari buruzko hausnarketa. *Tindemans Txostena* 1975eko amaieran aurkeztu zen eta Europar Batasuna lortzearen garrantzia azpimarratu zuen, baina hori lortzeko data finkorik ezin zela jarri adierazten zuen ere. Estatuak Erkidegoetara subiranotasuna lagatzea eskatzen zuen txostenak, arlo hauetan politika komunak era egokian garatzeko: gizarte-politika, erregio-politika, ingurumenaren babesa, ikerkuntza eta teknologia, kontsumitzaileen babesa. Txostenak defentsan eta kanpo gaietan politika komuna sortzea proposatzen zuen eta erakundeei buruz, Kontseiluan erabakiak aho batez baino gehiengoz hartzea, eta Europako Parlamentuaren funtzioak indartzea.

Estatu kideek ez zuten Tindemans Txostena bere osotasunean onartu. Bai, ordea, bertan jasotzen ziren ideia batzuk praktikara eramatea, hala nola, adierazitako politikak garatzea eta Erregioen Garapenerako Europako Funtsa sortzea, azken hau estatu kideetako erregioen artean nabariak ziren ekonomia eta gizarte arloko desorekak murrizteko.

Ekonomia-egoerak ekonomia- eta diru-batasunaren garapena geldiarazten zuen, baina ez zen alboratu. Horrela, Frantziak eta Alemaniak batera egindako proposamenari jarraituz Europako Diru Sistema (EDS) sortu zen 1978an. Horren helburua zen Europan diru-eremu egonkor bat —diruen arteko fluktuazioetatik babestua— eta politika ekonomiko nazionalen konbergentzia lortzea. Beraz, EDSk prezioen eta diruen truke-tipoen egonkortasuna lortu nahi zuen. Horretarako ECU (European Currency Unit) sortu zen, estatu kideen diruen saski bat, non diru bakoitzak zuen pisua estatu

bakoitzaren indar ekonomikoaren isla baitzen. ECUa Europako Erkidegoetako aurrekontua egiteko kontu unitate bihurtu zen.

1979an, Parisko goi bileran ezarritakoa betez, Europako Parlamentua sufragio unibertsal zuzenaren bidez aukeratu zuten lehen aldiz, zilegitasun demokratiko handiena zuen erakundea bilakatuz, herritarrek eurek hautatzen baitzuten. Dena den, bere eskumenak ez ziren oso zabalak, eta hori ekiditzeko lehen eurodiputatuak integrazio prozesuaren erreforma global baten alde agertu ziren. Zentzu horretan, Europako Parlamentuak 1984ko otsailaren 14an onartu zuen Europar Batasunaren Itun-Proiektua, *Spinelli Proiektua* izenez ezagutzen dena, bere ekimena Altiero Spinelli federalista italiarrak egin zuelako.

Bertan, Europar Batasunaren hiritartasunaren kontzeptua eta herritarren oinarrizko eskubideak zehaztu ziren, eta, aldi berean, erakunde ezberdinen eginkizunak ezarri ziren, horietako batzuk (Europako Parlamentua, Batzordea, Justizia Auzitegia) argi eta garbi indartuz, kontrol demokratikoaren mekanismoak ere ezarri ziren eta Europar Batasunaren eskumenak zerrendatu ziren. Proiektu honen alde agertu ziren Italia eta Beneluxeko hiru herrialdeak baina estatu kideek ez zuten onartu. Hala ere, Europar Batasunaren Itun-Proiektua eragin nabarmena izan zuen integrazio prozesuak hurrengo hamarkadetan izan zuen bilakaeran.

1980ko hamarkadan, Europaren integrazio prozesuaren bigarren zabalkundea gertatu zen, nahiz eta bi handitze suposatzen dituen. Sistema demokratikora itzuli ostean (kide bihurtzeko ezinbesteko baldintza), Greziak 1975ean eta Portugalek eta Espainiak 1977an eskaria egin zuten. Alderdi ekonomikoek pisu garrantzitsua izan zuten negoziazioetan, hautagai ziren hiru herrialdeak jada Erkidegoan zeudenak baino garapen ekonomiko txikiagoa baitzuten. 1981eko urtarrilaren 1ean Grezia estatu kide bihurtu zen eta bost urte beranduago, 1986ko urtarrilaren 1ean, Portugal eta Espainia batu ziren. Europako Erkidegoetako estatu kideak hamabi ziren jadanik.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=6884395>

1979an Margaret Thatcher, Europaren integrazio prozesuan sakontzearen kontrakoa, Erresuma Batuko Gobernura iritsi zen. Hala ere, lehen esan bezala, horixe izan zen, hain zuzen, prozesua berriro martxan jartzeko katalizatzaileetako bat. Izan ere, 1980ko hamarkadaren erdialdean François Mitterrand Frantziako presidentearen eta Helmut Kohl Alemaniako kantzilerraren artean zegoen harreman onak merkatu batua guztiz osotzeko bultzada eman zuen. Horren haritik, Europako Kontseiluaren enkarguz, Dooge Batzordea deitutakoak erreforma sakon bat aurrera eramateko beharrezko neurriak proposatu zituen arlo instituzionalean, politikoan eta ekonomikoan.

1985. urtean zehar estatuek negoziazioak aurrera eraman zituzten eta 1986ko otsailaren 17an Luxenburgon eta 28an Hagan, Europako Agiri Bakuna (EAB) sinatu zuten. Tratatu berri honek (nahiz eta "Tratatu" izena ez eduki, bada) Europako Erkidegoak sortu zituzten hiru itunak eraberritu zituen. Europaren integrazioa berriro abiarazteko akordio baliotsu hau 1987ko uztailaren 1ean sartu zen indarrean.

EABk ekarritako berritasunen artean, erakunde-alderdiak nabarmentzen dira: Europar Kontseilua Tratatuaren egituretan kokatu zuen (nahiz eta oraindik

erakunde izaerarik gabe); Kontseiluan erabaki-hartzea arintzeko asmoz gehiengo kualifikatuaren printzipioa ezarri zuen; Europako Parlamentuaren eskumenak zabaldu zituen funtzio legegileetan duen parte-hartzea areagotuz, eta Batzordearen eta Justizia Auzitegiaren eskumenak ere zabaldu zituen.

Bigarrenik, EABk Erkidegoaren barne-merkatua ezartzeko beharrezko neurriak ezarri zituen, hau da, estatu kide guztien merkatu komuna edo merkatu bakarra, zeinak aduana-tarifak eta estatu kideen arteko merkataritza askerako oztopo guztiak ezabatu behar baitzituen. Helburua lau askatasunak deiturikoak erabat aplikatzea zen: merkantzien zirkulazio askea, langileen zirkulazio askea, zerbitzuak emateko eta ezartzeko askatasuna, kapitalen zirkulazio askea. Merkatu batua osatzea 1993ko urtarrilaren 1erako aurreikusita zegoen eta halaxe bete zen, integrazio ekonomikoaren lehen fasea bete zelarik.

Azkenik, EABk beste gai garrantzitsu batzuk jaso zituen, hala nola estatu kideen lankidetzaren Ekonomia eta Diru Batasunari (EDB) dagokionez (dagoeneko integrazio ekonomikoaren bigarren fasea izango zena), gizarte politikaren indartzea eta Erkidego mailan honako politika berri hauek garatzea: diru-politika; gizarte-politika, ekonomia eta gizarte-kohesioa; ikerketa eta garapen teknologikoa; ingurumen-politika eta kanpo-politikan lankidetzaren.

III. EUROPAREN INTEGRAZIO PROZESUA: **EUROPAR BATASUNA (1990-2020)**

1. Bloke komunistaren desagitea eta globalizazioa

1980ko hamarkadan zehar, kolokan jartzen hasi zen herrialde komunisten eredu ekonomikoa, hazkunde-maila gero eta geldoagoa baitzuten. Arrazoen artean aipa daitezke inportazioen ordezkapen-prozesuaren ahalbideak agortzen hasi zirela eta plangintza zentralizatuaren kalkulu-akatsak gertatu zirela.

1985. urteaz geroztik, Gorbachov SESBen lehendakaritzara heldu bezain laster, aldaketari eta birmoldaketari ekin zioten Sobietar Batasunean. Ekonomiaren aldetik, merkatu-ekonomiaranzko lehenengo pausoak eman ziren, ekimen pribatuari protagonismo zabalagoa baimenduz eta atzerritarren inbertsio ugariagoak ahalbidetuz. Aldi berean, azkar murriztu zen estatuaren erabateko parte-hartzea —bai enpresaburu zuzen gisa, bai ekonomia-esparruan gehiegizko kontrolatzaile gisa—.

1991ko abenduan SESB oso azkar hondatu zen entitate geopolitiko gisa, arrapalada handiko erritmo historikoan. Sobietar Batasuna osatzen zuten hamabost errepublikak estatu independente bihurtu ziren. Aldi berean, SESBen laguntza ekonomikoa jasotzeari utzi ziotenean Europako Ekialdeko herrialde komunistetan aldaketa nabarmenak azkar batean martxan jarri ziren, kasu batzuetan era baketsuan (Polonia, Txekoslovakia edo Hungaria, adibidez) eta beste batzuetan gogorkeria zela medio (Errumania edo Jugoslavia). Horrela, Ekialdeko Europako herrialdeetan ere, Mendebaldeko gobernu kapitalisten gisakoek ordeztu zituzten ohiko gobernu komunistak eta azkar finkatu ziren merkatu-ekonomiak eta politika liberalak.

Bloke komunistaren porrotaren ondorioz kapitalismoa eredu ekonomiko bakarra izatera pasatu zen, baita globalizazio-prozesua bereiztera ere. Mundu mailako ekonomia-, teknologia-, gizarte- eta kultura-prozesua da globalizazioa. Geroz eta handiago den munduko herrialdeen arteko interdependentzian eta

komunikazioan datza; eta bereziki gizarte kapitalista demokratikoetan sortzen eta garatzen da. Ekonomia arloan, globalizazioak ekartzen du tokiko ekonomiak (nazionalak) mundu mailako merkatu-ekonomian bateratzea, non produkzio moduak eta kapitalen mugimenduak planeta-eskalan eratzen baitira. Inguru horretan, garrantzi handiagoa jasotzen dute enpresa multinazionalen rola, kapitalen zirkulazio askeak eta kontsumo-gizartearen ezarpenak. 1990eko hamarkadan zehar, ekonomiaren oinarria fabrikaziotik eta industriatik Internetera eta ezagutzara aldatu zuten herrialde garatuek eta garapen bidean zeuden aurreratuenek; horrela, hazkunde iraunkorreko eta produktibitatearen hobekuntzako zikloan sartu ziren.

Munduko herrialdeen arteko interdependentzia islatzen duten gertaerak, aldi berean globalizazioa zehazten dutenak, hauek dira:

- Washingtoneko adostasuna. Washingtonen egoitza duten talde ekonomikoek (AEBko Gobernuak, NDF, Mundu Bankua, baita GATT ere) 1990etik aurrera arazo ekonomikoak dituzten herrialdeen hazkundera sustatzeko ekonomia-programa gisa orokorki aholkatzen zuten hamar politiken zerrenda da: zerga-diziplina, gastu publikoaren lehentasunen berrantolaketa, zerga-sistemaren erreforma, interes-tipoen liberalizazioa, aldaketa-tipo lehiakorra, nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa, zuzeneko atzerritar inbertsioen sarreraren liberalizazioa, pribatizazioa, desarauketa, jabego-eskubideak.
- Merkataritzaren Mundu Erakundearen (MME) sorrera, 1995ean
- Krisialdi ekonomikoak: tokiko ekonomia- eta finantza-krisiek eragin globala izan dute, merkatuen interdependentzia dela medio. Mexikoko krisialdia, 1994an; Asiako hego-ekialdekoa, 1995ean; Errusiakoa, 1998an; Brasilekoa, 1999an; Argentinakoa, 2001ean.
- Ekonomia-bateratze prozesuak: 1990eko hamarkadan zehar, eskualde esparruko lankidetzak eta bateratze-prozesu asko sustatu eta garatu ziren (Europar Batasuna, Andeetako Erkidegoa, MERCOSUR, eta abar).
- Txinaren sarrera MMEn, 2001ean eta Errusiarena 2012an. Horrela, munduko ekonomia nazional nagusiak (guztiz garatuak eta garapen bidean dauden

aurreratuenak) MMEko kideak dira, eta globalki legitimatzen dituzte erakundearen helburuak (librekanbioaren aurrean ez dago aukerarik).

- 2001eko irailaren 11ko atentatuak: Une hartatik aurrera, nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokak eta segurtasun nazionalaren babesak eragin zuzena izan dute nazioarteko harreman ekonomikoetan.

2. Maastrichteko Ituna: Europar Batasuna

EABk Europaren integrazio prozesuaren dinamika azkartu zuen, beharrezkoak ziren moldaketa berriak bultzatu baitzituen. EABk barne merkatua martxan jartzeko arauketa ezarri zuen, hau da, integrazio ekonomikoa lortzeko lehen atala. Beraz, bigarrena garatu behar zuen arauketa negoziatu behar zen, hain zuzen, Ekonomia eta Diru Batasunari buruzkoa, integrazio ekonomikoa osotzeko eta, horrela, integrazio politikoarekin hasi ahal izateko.

Ordea, 1980ko hamarkadaren bukaeran eta 1990ekoaren hasieran mundu osoan eta, bereziki, Europako Erkidegoan eragin zuzena izan zuten egitate historikoak gertatu ziren. Gogoratu beharra dago bloke komunistaren desegiteak Alemaniako bateratzea ekarri zuela eta horrek Europako Erkidegoaren zabaltzea (ez zen estatu kide berririk gehitu, bai ordea, hogeit hamar milioi biztanle gehiago). Ekialdeko herrialdeek ekonomia zentralizatuko sistema batetik merkatu askeko trantsizioa hasi zuten (azkarregi, geroago nabarmenduko zenez) eta Europaren integrazio prozesuan sartzeko eskaria egin zuten. Europako Erkidegotik baiezko erantzuna jaso zuten, betiere beharrezko baldintzak bete behar zituztelarik (sistema demokratikoak eta merkatu askea). Herrialde horiek sistemak moldatzen eta prestatzen zituzten bitartean, Europako Erkidegoko estatu kideek Tratatuaren erreforma berria negoziatu zuten, integrazio prozesua garatzeko helburuarekin.

1990eko apirilean Dublinen batzarturik, Kontseiluak gobernuarteko bi biltzar antolatu zituen; bata EDB antolatzeko, bestea batasun politikoari buruz eztabaidatzeko. Negoziazioen emaitza Maastrichteko Ituna izan zen, 1990eko otsailaren 7an Herbehereetako hirian sinatu zen ituna. Berreste prozesu luze

baten ondoren (estatu kide batzuek aldaketak egin behar izan zituzten Konstituzioan) indarrean sartu zen 1993ko azaroaren 1ean. Itun honek pertsonalitate juridikoa ematen dio Europar Batasunari, ondorioz, ordutik aurrera Europako Erkidegoaren ordezkari Europar Batasuna deitura erabiltzen da Europaren integrazio prozesua gauzatzeko duen erakundea izendatzeko.

EABk egin zuen bezala, Maastrichteko Itunak Europako Erkidegoetako jatorrizko hiru itunak ere moldatu zituen. Baina horrez gain, arauketa berri bat ekarri zuen, testu juridiko berri bat, hain zuzen Europar Batasunaren Ituna (EBI). Horrela, Europaren integrazio prozesuaren oinarritzko arauketa lau Itunetan jasotzen zen 1992tik aurrera:

- EBIk arauketa hauxe jasotzen zuen: arau komunak (Europar Batasunaren sorrera, helburuak eta osagaiak), Kanpo eta Segurtasun Politika, Justizia eta Barne Gaietan Lankidetzak, moldaketak, kide berrien onarpena, eta abar.
- Europako hiru Erkidegoen itunak: Europako Erkidegoaren Ituna (ofizialki galdu zuen "ekonomia" izenlaguna), IAEEren Ituna eta EAEEren Ituna.

EBIk aldaketa garrantzitsuak ezarri zituen Europako Erkidegoaren Itunean, hala nola, Erkidegoaren eskumenak indartu ziren eta eskumen berriak jaso zituen, erakunde batzuen botereak handitu ziren (bereziki, Europako Parlamentuaren legegintza boterea zabaldu zen). Hala ere, nabarmenezko bi berrikuntza aipatu behar dira. Alde batetik, EDB lortzeko arauketa izan zen; horren bitartez, Europar Batasunean diru bakarra egoteko eta ekonomia batasuna martxan jartzeko arauak ezarri ziren, baita bertan sartzeko estatu kideek bete behar zituzten baldintzak ere. Bestetik, batasun politikorako lehen urratsa eman zen, "Batasunaren hiritartasuna" sortu baitzen. Horren bitartez estatu kideetako hiritarrek (nazionalak) Europar Batasunari lotutako eskubide politikoak eskuratzen dituzte.

EDB martxan jartzeak Europaren integrazio prozesuaren hasieran finkatutako helburuaren lehen atala lortzea ekarri behar zuen, hau da, integrazio ekonomikoa. Horrek ahalbidetzen zuen integrazio helburuaren bigarren atala lortzeko bidea hastea, hau da, batasun politikoa lortzeko lehen urratsak ematea. EBIk Europaren integrazio prozesuaren alderdi politikoa

gidatzeko tresna ezarri zuen, bere izendapenean agertzen zena, hain zuzen ere: Europar Batasuna. Egia da nazioarteko hiru erakunde ziren Erkidegoak mantentzen zirela (Europako Erkidegoa, IAEE eta EAEE) baina hirurak batuz eta beren gain pertsonalitate juridikoa zuen Europar Batasuna kokatu zen.

Bestalde, EBI indarrean sartzen zen bitartean, estatu kide izateko eskaria egin zuten beste lau herrialdek: Austria, Suedia, Finlandia eta, berriro ere, Norvegia. Negoziazioak bete ondoren, lau herrialdeek atxikimendurako itunak sinatu zituzten. Norvegiako herriak atxikimendua baieztatzeko erreferendumean ezezkoa eman zuen eta, horren ondorioz, 1995eko urtarrilaren 1ean Europar Batasuneko estatu kide bihurtu ziren Austria, Suedia eta Finlandia (tamaina erdiko bi herrialde eta hirugarrena txikia, hirurak garapen ekonomiko handiarekin). Horrela, Europaren integrazio prozesuan hamabost estatu kidek parte hartzen zuten.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=6884395>

3. Amsterdameko Ituna eta Nizako Ituna

EBIk berrikuntza ugari ekarri zituen baina erakunde-sistemaren moldaketa beharrezkoa ikusten zen arrazoi ezberdinengatik. Alde batetik, etorkizun laburrean emango ziren zabaltze prozesuak, Ekialdeko herrialdeei promesa egin baitzitzairen Europar Batasunaren kide bihurtuko zirela eta horrek kideen kopurua bikoiztu zezakeen. Sei estatu kide zituen nazioarteko erakundearentzat antolatutako erakunde sistemak ez zirudien egokiena ia hogeita hamar kide izango zuenarentzat. Bestetik, agerian ziren zenbait hutsune, hala nola legitimitate demokratikoaren falta eta erakunde-funtzionamenduaren gardentasunaren falta (hiritarrek ikusten zuten Europar Batasuna sistema burokratiko konplexu gisa, haiengandik gero eta urrunago).

1997ko urriaren 2an Amsterdameko Ituna sinatu zen eta indarrean zeuden lau itunetan moldaketak ekarri zituen. Ordea, helburu nagusia ez zuen bete; izan ere, itun horrek ezarri behar zuen berrikuntza nagusia erakunde-antolaketaren moldaketa zen, hain zuzen, Europar Batasunean sartzeko hautagaiak ziren Ekialdeko herrialdeak kide bihurtzeko beharrezkoa zen antolaketa berria. Hala eta guztiz ere, 1999ko maiatzaren 1ean indarrean sartu zenean, zenbait aldaketa ezarri zituen erakunde batzuetan eta azpimarratzekoa da Europako Parlamentuaren legegintza botereak zabaldu zituela.

Amsterdameko Itunak ekarri zuen ondorio garrantzitsua Europako ekialderako zabaltzearen atzerapena izan zen, beharrezkoa zen erakunde-antolaketaren moldaketa aurrerago egin beharko baitzen. Gai honetan kontutan hartu behar da herrialde hautagaien egoera ekonomikoa. Bloke komunista desegin zenean herrialde horiek zituzten datu ekonomikoak ez ziren guztiz txarrak eta orduan egin ziren aurreikuspenen arabera posible izango zuten Europar Batasunean sartzea epe laburrean. Ordea, ekonomia zentralizatu sistematik kapitalismora aurrera eraman behar zuten trantsizioa oso modu azkarrean egin nahi izan zuten eta horrek desoreka handiak ekarri zituen. Adibide gisa, enpresa publikoek merkatu askean lehiatzeko gaitasunik ez zutelarik ikustean, herrialde horietako gobernuek enpresa publikoak saldu zituzten

inbertsiorako funtsak lortu nahian, baina oso merke saldu behar izan zituzten. Guzti horren ondorioz herrialde hautagaien datu makroekonomikoak 1990eko hamarkadaren erdian txarragoak ziren 1989koekin alderatuta. Herrialde horien atxikimenduak oso kostu garaia izango zuela ikusita, Europar Batasuneko kide ziren hamabost estatuak ekialderako zabaltzea atzeratzea erabaki zuten eta horregatik Amsterdameko Itunak ez zuen jaso erakunde-antolaketaren moldaketarik (nolabait, adostutako porrota izan zen).

Aldi berean, hamabost estatu kideek denbora lortu zuten EDB martxan jartzeko. Hori horrela zen euroa diru gisa izateko beharrezkoak ziren arauak betetzeko zailtasun handiak izango zituzten herrialdeak Europar Batasunetik kanpo mantenduko baitziren urte batzuetan zehar. Ondorioz, EDBren antolaketari buruzko erabakiak hartuz joan ziren, 1999an euroa kontu unitate gisa erabiltzen hasi zen eta 2002an Euroguneko dirua bilakatu zen.

Egiteke gelditu zen erakunde-antolaketa berria Nizako Itunak ezarri zuen, zeina 2001eko otsailaren 26an sinatu baitzen. Itun berria 2003ko otsailean sartu zen indarrean. Azkenean ez zuen moldaketa sakonik ekarri (jadanik Europar Batasunaren etorkizunerako beharrezko aurreikusten zen moldaketa orokor bat), baizik eta Europar Batasunaren zabaltzea ahalbidetzeko gutxieneko erakunde-berrikuntzak ekarri zituen, hala nola Europako Parlamentuaren diputatuen banaketa berria edo Kontseiluan gehiengo kualifikatua lortzeko botoen haztapen berria.

4. Hazkunde ekonomikoa (1990-2007)

Munduko ekonomiaren bilakaerak XX. mendetik XXI. mendera emaitza kontraesankorrak ekarri ditu, globalizazio neoliberalaren ezaugarrien ondorioak direnak hain zuzen ere. Alde batetik, objektiboki positiboak diren emaitzak daude, hala nola, Mendebaldeko herrialdeen ekonomiaren berreskurapena, erregio-esparruko krisi ekonomikoak gainditzea eta garapen bidean dauden zenbait herrialderen hazkundea. Zentzu berean, positiboa izan da hazkunderako gune dinamiko berrien sorrera, BRIC delakoa (Brasil Errusia,

India eta Txina) eta garapen bidean baina jadanik industrializatuta dauden zenbait ekonomia. Ordea, globalizazio neoliberalak langileen bizitza eta lan-baldintzak okertzea eragin duenez, gizarte-atsekabea handitu du; are gehiago hazkunde ekonomikoa posible delako langabezia-maila altuekin edota enplegu eskasen ehuneko altuarekin.

1980ko hamarkadaren erdialdean, munduko ekonomiak krisiaren ondorioak gainditu zituenetik, BPGa hazkunde-erritmo egonkorra izan du. Hala ere, krisia baino lehen zegoena baino txikiagoa izan da; horrek adierazten du motelagoa dela munduko ekintza ekonomiko garaikidearen dinamismoa, nazioarteko BPGaren hazkunde tasaren urteroko batezbestekoa ikusita:

- % 5 izan zen 1950etik (BMGren ondorioak gainditu zirenetik) 1973ra (nazioarteko krisiaren agerpena);
- krisialdia kontuan hartzen bada ere % 4,7 izan zen 1950etik 1980ra;
- ordea, nazioarteko BPGaren hazkunde-tasaren urteroko batezbestekoa % 2,8 izan zen 1980tik 2007ra.

Munduko BPGaren eraketan herrialdeek eta erregioek izandako parte-hartzea aldatuz joan da. Horrela, Mendebaldeko ekonomien parte-hartzea gutxitu den heinean (AEB, Kanada, Europar Batasuna, Japonia, Australia, eta abar), nabarmenki handitu dute beren parte-hartzea garapen bidean dauden industrializatutako ekonomia aurreratuenek (BRIC herrialdeek, bereziki):

- 1980tik 2007ra, AEBk, Europar Batasuneko estatu kideek eta Japoniak osatzen zuten BPG, munduko BPGaren % 60,8 izatetik % 49,1 izatera pasa zen;
- kontrako zentzuan, BRIC taldeak handitu egin zuen bere parte-hartzea % 13,2tik (1980an) % 21,9ra (2007an).

Globalizazio neoliberallean zehar, nahiko egonkorra izan da nazioarteko merkataritza-fluxuen hazkundera. Hala ere, ez da ailegatu 1970eko hamarkadako krisiaren aurretik zegoen erritmo altura. Hala da, salgaien nazioarteko merkataritzaren bolumen errealearen urteroko hazkundera ikusita:

- 1950etik 1973ra, urteroko hazkunderaren batezbestekoa % 8,3 izan zen;

- 1973-1983 epean % 2,6ra jaitsi zen;
- 1983tik 2006ra berriro igo zen; ordea, % 5,9 izan zen.


5. Ekialderako zabaltzea, Europako Konstituzioa eta Lisboako Ituna

Esan bezala, bloke komunista desegin zenean Ekialdeko herrialdeek Europar Batasunean sartzeko eskaria egin zuten. Europar Batasunak 1994an PHARE programa martxan jarri zuen, ekonomia zentralizatutik merkatu askeko sistemara aldatzen ari ziren herrialde horiei laguntza emateko. Malta eta Zipre salbu, hautagai ziren beste hamar herrialdeak sistema komunistatik zetozen eta haien egoera ekonomikoa Europar Batasuneko estatu kideek zutenaren oso ezberdina zen. Aurrera eramaten ari ziren trantsizio ekonomikoa eta politikoa arrakastatsu izateko ahalegin handia egin behar zuten, aurreko zabaltzeetan estatu kide izateko beste edozein hautagaik egindakoa baino handiagoa.

Arrazoi horretan datza zabaltzearen atzerapena, Amsterdameko Itunaren porrotaren bidez egin zena. Ordea, horrek ere ekarri zuen iritzi publikoan ekialderako zabaltzearen kontrako jarrera. Deigarria izan zen 1995etik aurrera garatu zen hazkunde ekonomikoko testuinguruan hiritarren zati bat Ekialderako zabaltzearen kontra agertu izana, orduko hamabost estatu kideetako gizarte-eta ekonomia-egoeran eragin kaltegarria izan zezakeelako, bereziki, langileen immigrazioa erraztu zezakeelako. Ikuspuntu horren sorreran 1990.eko hamarkadan estatu kideetako agintariek eta goi mailako politikariek adierazten zutenak eragin zuzena izan zuen, hazkunde ekonomikoaren arrazoiak gobernu nazionalen erabakien ondorio gisa aurkezten baitzituzten (Europako politiken eragin baikorra isilean gordez) eta, ordea, gertatzen ziren gaitz guztien errua Europar Batasunaren erabakiei leporatzen zieten (erabaki horiek hartzeko orduan Estatu kideek parte hartzen zutela isilean gordez).

Nizako Itunak ekialderako zabaltzea posible egin zuenean, 2002ko urrian Europar Kontseiluak hautagaiak estatu kide izateko datak finkatu zituen. Hala, zabaltzea bi fasetan egin zen:

- 2004ko maiatzaren 1ean kide bihurtu ziren Estonia, Eslovenia, Eslovakia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Txekiako Errepublika eta Zipre.
- 2007ko urtarrilaren 1ean Bulgaria eta Errumania.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=6884395>

Aipatutako iritzi publikoa hartzen ari zen indarra ikusita, Batzordeak 2003an zabaltzearen aurreikuspenak jasotzen zuen txostena argitaratu zuen, beldurrik izateko arrazoirik ez zegoela erakusteko. Bertan jasotakoa bete zela frogatzen zuen txosten berria atera zuen 2006an, zabaltzea gertatu eta gero. Honako datu hauek datuak adierazten ziren:

- Estatu kide berrietatik lehenengo hamabost estatu kideetara egondako immigrazioa langileen % 1 baino gutxiagokoa izan zen.
- 2003an Europar Batasunaren langabezia-tasa % 10 zen; 2006an % 8,5.
- Zabaltzea legezko migrazioa kontrolatzea erraztu zuen (Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan jatorria zuen legez kanpoko migrazioa ez bezala).
- Ez zen ia enpresen deslokalizaziorik gertatu. Egia da lehenengo hamabost estatu kideetako enpresa askok inbertsioak egin zituztela ekialdeko estatu kide berrietan, baina horrek aukerak sortzen zituen Europar Batasunean bertan.

- Estatu kide berriei emandako laguntza ekonomikoa 2004-2006 epean Europar Batasunaren BPGaren % 0,25 izan zen.

Hala ere, Europako iritzi publikoak Europar Batasunaren kontra zuen mesfidantza handitzen ari zen eta horrek eragin zuzena izan zuen Europako Konstituzioaren porrotean.

2001eko abenduan, Laeken bildutako Europar Kontseiluak Europar Batasunaren etorkizunari buruzko batzar zabal bat deitu zuen. Nizako Itunak Ekialderako zabaltzea posible egiteko gutxieneko erakunde-moldaketak ekarri zituen, ordea; Europaren integrazio prozesuaren hausnarketa zabal eta sakona egin nahi zen eta beharrezko erreforma jasoko zuen ituna prestatu. Aurreko kasuetan ez bezala, non erreformarako negoziazioak gobernuarteko batzarretan egin baitziren, Europako Konbentzioa antolatu zen. Horretan Europar Batasunak berak eta estatu kideek parte hartu zuten (Batzordearen eta Europako Parlamentuaren ordezkarien bitartez eta gobernu eta parlamentu nazionalen ordezkarien bitartez). Aldi berean, begirale gisa, parte hartu zuten hautagai ziren herrialdeen gobernuen eta parlamentuen ordezkariak ere. Eta eztabaida Europako hiritarrei zabaldu zitzairen, gizarte zibilaren aktoreei zuzendutako foroen bitartez (erakunde politikoak, sindikatuak, enpresariak, mota guztietako elkarteak, gobernu kanpoko erakundeak eta abar).

Konbentzioak Europarentzat Konstituzio bat eratzen duen Itun-Proiektua aurkeztu zuen 2003ko uztailan. Europar Kontseiluak ezin izan zuen testu horren onarpena adostu (Espainia kontra agertu zen). 2004ko maiatzeko zabaltzearen ostean estatu kideek negoziazioei jarraipena eman zieten eta 2004ko urriaren 29an itun berria sinatu zuten. Itun berri hori Europako Konstituzioa izenarekin ezagutu zen eta aurreko itun guztiak testu bakar batean batzen zituen.

Estatu kideek berrespen prozesua hasi zuten. Irlandak eta Danimarkak erreferenduma egin behar zuten, haien Konstituzioek behartuta. Ordea, beste estatu batzuek kontsulta-erreferenduma egitea erabaki zuten, nahiz eta berrespena parlamentu nazionalak egin behar zuten (Espainia, Frantzia, Herbehereak, Txekiako Errepublika, Polonia, Portugal eta Erresuma Batua). 2005eko maiatzean Frantziak eta ekainean Herbehereek egindako

erreferendumentan ezezkoa izan zen emaitza. 2007ko urtarrilean, Bulgaria eta Errumania estatu kide bihurtu zirenean, hamazortzi ziren itun berria berretsi zuten kideak, beste zazpiak oraindik berrespena egin behar zutelarik (Frantziak eta Herbehereek adierazi zuten erreferendumen emaitza errespetatuko zutela).

Frantziako eta Herbehereetako erreferendumentako emaitzek (eta estatu kide askotan inkestek adierazten zuten iritzi publikoak) ondorioztatzen zuten hiritarrek ez zituztela hauteman Europako Konstituzioak ekar zitzakeen arlo positiboak. Erreferendumen osteko inkesten arabera, Frantzian eta Herbehereetan ezezko botoa eman zutenen artean, batez besteko handia Europar Batasunaren alde agertzen zen. Ordea, argi gelditu zen aurreko azken urteotan agertutako arazoak kontutan hartu zituztela; horietako asko esparru nazionaleko arazoak baziren ere, erronkei aurre egiteko (ekonomikoak bereziki, baita arrisku gisa ikusten zirenak ere, hala nola immigrazioa) ez zuten Europar Batasuna gai ikusten. Lehen aipatutako ideiak (hazkunde ekonomiko herrialdeari esker, gaitzen errudun Europar Batasuna) eragin zuzena izan zuen. Gainera, Konstituzioak oso testu juridiko konplexua jasotzen zuen, ulertzen zaila, eta gobernuek ez zuten edukia azaltzeko benetako ahalmen sakonik egin; horrela, hiritar asko ez ziren gai jakiteko zer ekar zezaketen baiezko edo ezezko botoak.

2007ko lehen seihilekoan Alemaniak Europar Batasunaren presidentzia izan zuen. Europako Konstituzioa estatu kide guztiek adostutako ituna izanik (eta gobernu guztiek onartua) Angela Merkel kantzilerrak Konstituzioa albo batera uzteko eta, aldi berean, bere edukiaren gehiengoa izango zuen itun berria prestatzeko prozesua gidatu zuen. Horrela, ekainean Europar Kontseiluak EBI eta Europako Erkidegoaren Ituna moldatzeko negoziazioak hasteko agindua eman zuen. Horien oinarria Konstituzioaren testua izan zen, aldaketa gutxi batzuk egin zirelarik. Adostasuna erraz lortu zen eta abenduaren 13an Lisboako Ituna sinatu zuten estatu kide guztiek. Lisboako Itunari esker Europar Batasuna 2005etik bizitzen ari zen geldialdia bukaera eman zitzaion. Itun berriak oso interes eta lehentasun ezberdinak dituzten estatu kideen artean akordio sakonak lortu daitezkeela erakutsi zuen. Ordea, itun hori lortzeko bidea

oso kritikagarria da, aurrerapen nabaria izan zen konbentzioa alboratu zelako, gobernuarteko negoziazioetara itzuli baitzen.

Europako Konstituzioarekin ez bezala, itun berria berresteko orduan erreferendumaren bidezko kontsulta bertan behera gelditu zen. Irlandak bakarrik egin behar zuen, Konstituzio nazionalak hala behartuta (Danimarkan aldaketa egin zen eta ez zen jadanik beharrezkoa). 2008ko ekainean egin zen eta emaitza ezezkoa izan zen. Abendurako beste estatu kide guztiek Lisboako Ituna berretsi zuten eta Europar Kontseiluak aldaketa bat onartu zuen (Batzordearen konposaketa berria atzeratzea), Irlandaren onarpena lortu nahian. 2009ko azaroan Irlandan egindako bigarren erreferendumak baiezkotzat erantzuna eman zuen eta, horrela, Lisboako Ituna urte horretako abenduaren 1ean indarrean sartu zen.

Esan bezala, Lisboako Itunak Europako Konstituzioa izan behar zenaren eduki gehiena mantendu zuen eta egungo Europar Batasunaren funtsezko arauketa jasotzen duten bi testuak eratu zituen: Europar Batasuneko Ituna eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna.

6. Krisi ekonomiko berria (2008-2014)

2007an zehar, *subprime* hipotekek sortuko zituzten arazoaren lehenengo seinaleak izan ziren AEBn. Hipoteka horiek oso baliabide murriztuak zituzten pertsonen eman zizkieten; beraz, hipotekak ez kobratzeko aukera handiak zeuden. Urte horren bukaeran, AEBko balore-merkatuek beheranzko joera hartu zuten, eta 2008an zehar egoera larriagotu egin zen: AEBko burtsan ezkortasuna nagusitu zen, eta galerak jasaten zituen egunero finantzazurrumurruegatik (askotan % 20ko galerak). Irailean, arazoak larritu egin ziren *subprime* hipoteken arloan aritu ziren zenbait finantza-erakundeek porrot egin zutenean. Gobernu Federalak mahai gainean jarri zituen 700.000 milioi dolar, erakunde horietako batzuk salbatzeko.

2008 bukatu baino lehen egiaztatu zen estatu askotako finantza-erakundeek kutsatutako funtsak zituztela, hau da, kobratu ezin ziren hipotekak

batzen zituzten finantza-paketeak erosi zituztela nazioarteko merkatuetan. Horrela, krisialdia munduan zehar zabaldu zen, egoera horretan agerian gelditu zelako bankuen likidezia falta eta zenbait sektoretako eragile ekonomikoek galdu egin zutelako beharrezko zuten finantza. Beste era batera esanda, finantzaketa hori behar zuten enpresek eta kontsumitzaileek ezin izan zuten produkzioa eta kontsumoa mantendu; horrek, ekintza ekonomikoa jaistea eta langabezia gehitzea ekarri zuen.

2009an zehar European banku asko nazionalizatu ziren (lehenengoak Erresuma Batuan, Islandian eta Frantzia). Agintari ekonomikoek (Banku Zentralek) banku pribatuei baldintza mesedegarriko maileguak erraztu zizkieten likidezia handitzeko, eta interes tipoa jaitsi zituzten. Ordea, bankuen arteko mesfidantza zela eta, kreditu-merkatua gelditu egin zen (bankuek ez zioten elkarri mailegurik ematen, bakoitzak ez baitzekien kutsatutako zenbat funts zituzten besteek ezta bakoitzak norainoko gaitasuna zuen ordaintzeko ere). Horrek enpresentzako eta hiritarrentzako kreditu falta ekarri zuen, maileguak eta hipotekak jasotzeko baldintzak zaildu zituen (merkataritza-interes altuagoak) eta, ondorioz, ekintza ekonomikoa ahuldu egin zen.

Egoerak okerrera egin zuen, krisialdiaren errudun ere baziren bankuek gobernuen finantzaketa beharrak baliatu zituztelako beren negozioa salbatzeko. Hain zuzen ere, bankuek diru kopuru handiak utzi zizkieten maileguan gobernuari, baina baldintza gogorrak ezarri zizkieten (interes altuak). Gobernuak dirua itzuli ahal izateko baliabide ekonomikoak bilatu zituzten eta erreforma gogorrak egin behar izan zituzten, hala nola gizarte arloan gastua gutxitzea eta soldatak murriztea. Horren ondorioak izan ziren erosteko ahalmena gutxitzea, kontsumoa murriztea, enpresen jarduera moteltzea eta langabezia-tasak gora jarraitzea. Zenbait herrialderen egoera larriagotu egin zen, bereziki European.

2010. urtearen hasieratik aurrera, Euroguneko estatu batzuek konfiantza-krisialdi izugarria jasan zuten. 2008an nazioartean eztanda egindako krisiak beste arrazoi batzuk areagotu zituen: 2002-2008 epean egon ziren kreditua lortzeko baldintza errazak, zeinek mailegu- eta zorpetze-praktika arriskutsuak sustatu baitzituzten; zerga-politikan hartutako erabakiak; zenbait estatuk

erabilitako tresna beren bankuak eta finantza-erakundeak laguntzeko, zor pribatuak berenganatu eta galerak sozializatu baitzituzten.

Egoera horrek agerian utzi zituen Eurogunean zeuden hutsune batzuk:

- euroa babesteko bateratze politiko eta ekonomiko nahikoaren falta, are gehiago, zerga-batasun falta;
- estatu kideen kontu publikoen gaineko Europako Batzordearen kontrol falta (horrek zenbait estatuari beren defizitak disimulatzea ahalbidetu zien);
- Euroguneako kideen arteko lankidetzaren falta;
- Eurogunean sor zitezkeen krisialdiak era egokian kudeatzeko tresna falta.

2009ko urrian Greziako gobernuak herrialdearen egoera ekonomikoa hondamenezkoa zela adierazi zuen eta defizita aurreikusitakoa baino askoz ere altuagoa izango zela (% 13,6 hain zuzen, aurretik % 3,7 aurreikusten zelarik). Era berean, onartu zuen aurreko hamarkadan Greziak bere zorren benetako tamainari buruz gezurretan zebilela (Eurogunean sartu ahal izateko).

Egoera txarragora jotzen ari zenez eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuk defizitaren eta zor publikoaren datu altuak adierazten ari zirenez, erreskate-plana ezartzea erabaki zen, finantza-arazoak zituzten herrialdeei laguntza emateko. Laguntza jaso nahi zuten herrialdeek zorrotzasun neurriak hartu behar zituzten, gastu publikoa murrizteko eta diru-sarrerak handitzeko (enpresa publikoak saldu eta zergak igo), zorra eta maileguak ordaintzeko helburuarekin.

Erreskatea deritzon laguntza ekonomikoa jaso zuten herrialdeak hauek izan ziren: Irlanda (2010eko iraila), Portugal (2011ko maiatza), Grezia (bigarren erreskatea, 2011ko maiatza), Espainia (2012ko ekaina), Zipre (2013ko martxoa), Grezia (hirugarren erreskatea, 2014ko Abendua). Italia, Frantzia eta Belgika ere oso egoera larrian egon ziren baina erreskatea ekidin zuten.

Krisi ekonomikoak eta horri aurre egiteko hartutako neurriek erakutsi zuten gobernu askok interes publikoaren defentsa baino gehiago interes pribatu jakin batzuen defentsa egin zutela, baita zenbait gobernuak finantza eta egoera ekonomikoari buruz gezurretan ibili izan zirela ere. Ondorioz, mugimendu

populistak hedatu egin ziren (Frantzia, Holanda, Italia, Espainia) eta estatu kide batzuetan boterera ere iritsi ziren (Hungaria, Polonia). Horietan, demokrazia ez-liberal deiturikoa bultzatzen da: boterea gutxi batzuen eskuetan pilatzen da, erakunde-kontrola murrizten da eta askatasun zibilak urritzen dira. Mugimendu horiek ezaugarri bera dute: Europaren integrazioaren kontrakoak dira.

7. Egungo egoera

1970.eko hamarkadako krisiaren ondoren gertatu izan zen bezala, gastu publikoa gutxitzeko neurriak hartu ziren (orokorki 'murrizketa-neurriak' gisa ezagun egin zirenak: pribatizazioak, lan-erreforma, eta abar); horren ondorioz, 2013an ekonomia orekatzen hasi zen. Datu makroekonomikoak kontutan hartuta 2014tik aurrera krisia gainditu zela esaten da, bereziki BPGaren hazkundera ikusita (Europar Batasunaren hazkundera erritmoa AEBerena baino altuagoa izan zen 2016an eta 2017an). 2014tik aurrera langabezia tasa gutxitzen hasi zen ere baina ez zen 1950. eta 1960.eko hamarkadetako datu bikainetara hurbildu. Bestalde, 2020ko datuetan COVID-19ko pandemiaren ondorioz emandako ekonomia geldiunea nabaria da.

BPGaren hazkundera (2008-2021):

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EB	0,5	-4,3	2,2	1,8	-0,4	0,3	1,8	2,3	2,0	2,6	1,9	1,8	-5,9	5,4
EG	0,4	-4,5	2,2	1,7	-0,9	-0,3	1,4	2,0	1,9	2,6	1,8	1,6	-6,3	5,4

EB: EB-28 (2013-2019), EB-27 (2020-2021); EG: Eurogunea. Iturria: Eurostat

Langabezia-tasa (2008-2021):

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EB	7,9	9,7	10,1	10,1	11,1	11,6	11,0	10,2	9,3	8,3	7,4	6,8	7,2	7,0
EG	8,3	10,0	10,3	10,3	11,5	12,1	11,7	10,9	10,1	9,1	8,2	7,6	8,0	7,7

EB: EB-27; EG: Eurogunea. Iturria: Eurostat

Inflazioa (2008-2021):

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EB	3,7	1,0	2,1	3,1	2,6	1,5	0,6	0,1	0,2	1,7	1,9	1,5	0,7	2,9
EG	3,3	0,3	1,6	2,7	2,5	1,4	0,4	0,2	0,2	1,5	1,8	1,2	0,3	2,6

EB: EB-28 (2013-2019), EB-27 (2020-2021); EG: Eurogunea. Iturria: Eurostat

2004ko zabaltzearen ondoren Ekonomia eta Diru Batasuna martxan jartzeko prozesuaren erritmoa azkartzen hasi bazen ere, 2008ko krisiak eragina izan zuen estatu kide batzuek Eurogunean espero zuten baino beranduago sartzeko. Hala ere, hasierako hamabi estatu kideez gain, zegozkien baldintzak bete ondoren, Estatu kide hauek ere euroa dute diru gisa: 2007tik, Esloveniak; 2008tik, Ziprek eta Maltak; 2009tik, Eslovakiak; 2011tik, Estoniak; 2014tik Letoniak; eta 2015etik, Lituaniak.


Oraingoz, Europaren integrazio prozesuak izan duen azken zabaltzea 2013an gertatu zen. Urte horretako urtarrilaren 1ean Kroazia Europar Batasunaren hogeita zortzigarren kidea bihurtu zen.

Ordea, kide kopuru hori gutxitu zen 2020an. 2016ko ekainean Erresuma Batuak Europaren integrazio prozesuan mantentzeko ala alde egiteko erreferenduma egin zuen. Alde egitea (Brexit) atera zen garaile eta gobernu britainiarrak Europar Batasunetik irteteko prozesua martxan jarri zuen 2017ko martxoan. Negoziazio zail eta luzeen ondoren akordioa adostu zen baina Erresuma Batuko parlamentuak ez zuen berretsi. Ondorioz, 2020ko urtarrilaren 1ean Erresuma Batuak Europar Batasunaren estatu kide izateari utzi zion eta ez du berarekin inongo merkataritza-akordiorik. Beraz, gaur egun Europar Batasunak 27 estatu kide ditu.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=8299566>

Europar Batasuna, Norvegia eta Suitzarekin batera, munduko ekonomia-hirukoaren kide bat da, Ipar-Amerika (AEB + Kanada) eta Japonia-Hego Korea bikotearekin batera. Hiru horien parean BRICS taldea agertzen da (Hegoafrika barne).



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=20160643>

Munduko beste ekonomiekin alderatuta, Europar Batasuna:

- biztanleriari begira, hirugarrena da (Txina eta Indiaren ondoren);
- azalerari begira, zazpigarrena (Errusia, Kanada, Txina, AEB, Brasil eta Australiaren ondoren);
- eta tamaina ekonomiakoari begira, BPGa kontutan hartuta, hirugarrena (AEBren eta Txinaren ondoren).

	Biztanleria milakoetan (2022)	BPGa milioi dolarretan (2022)	BPGa per capita dolarretan (2022)	Langabezia (2021)	GGI (2020)
EB	446.820	18.353.000	38.260	% 7,0	(0,896) 27
AEB	332.250	24.796.000	74.725	% 3,9	(0,926) 17
Txina	1.415.900	18.463.000	12.990	% 5,1	(0,761) 85
Japonia	124.850	5.383.000	43.120	% 2,7	(0,919) 19
Erresuma Batua	67.830	3.442.000	50.880	% 4,1	(0,932) 13
India	1.408.400	3.250.000	2.310	% 7,9	(0,645) 131
Kanada	38.790	2.190.000	56.740	% 6,0	(0,929) 16
Hego Korea	52.080	1.907.000	36.790	% 3,8	(0,916) 23
Brasil	215.500	1.810.000	8.460	% 13,2	(0,765) 84
Errusia	145.300	1.703.000	11.660	% 4,3	(0,824) 52


Iturria: biztanleria, BPG eta GGI, Nazio Batuak; langabezia, datasmacro.com

Europar Batasuneko estatu kideen kasuan, aurreko taulan aurkeztutako datuak beste taula honetan jasotzen dira, tamaina kontutan hartuta zerrendatuta agertzen direlarik (Europar Batasunean herrialdeen tamaina biztanleriak zehazten du):

	Biztanleria milakoetan (2020)	BPGa milioi eurotan (2021)	BPGa per capita eurotan (2021)	Langabezia (2021)	GGI (2020)
EB	447.346	14.475.667	32.330	% 7,0	(0,896) 27
Eurogunea	342.567	12.269.682	35.780	% 7,7	
Alemania	83.160	3.570.620	42.920	% 3,6	6
Frantzia	67.571	2.500.870	36.660	% 7,9	26
Italia	59.438	1.775.436	30.040	% 9,5	29
Espania	47.635	1.205.063	26.460	% 14,8	25
Polonia	37.899	574.385	15.050	% 3,4	35
Errumania	19.265	240.154	12.510	% 5,6	49
Herbehereak	17.441	856.356	48.840	% 4,2	8
Belgika	11.538	506.205	43.680	% 6,3	14
Grezia	10.698	182.830	17.140	% 14,7	32
Txekiako Er.	10.697	238.238	22.270	% 2,8	27
Suedia	10.353	537.830	51.630	% 8,8	7
Portugal	10.297	211.279	20.530	% 6,6	38
Hungaria	9.750	154.124	15.870	% 4,1	40
Austria	8.916	402.710	44.970	% 6,2	18
Bulgaria	6.934	67.872	9.850	% 5,3	56
Danimarka	5.831	336.718	57.520	% 5,1	10
Eslovakia	5.458	97.122	17.820	% 6,8	39
Finlandia	5.529	251.431	45.370	% 7,7	11
Irlanda	4.985	421.529	83.990	% 6,2	2
Kroazia	4.047	57.199	14.710	% 7,6	43
Lituania	2.794	55.383	19.760	% 7,1	34
Eslovenia	2.102	52.020	24.680	% 4,8	22
Letonia	1.900	32.866	17.450	% 7,6	37
Estonia	1.329	30.660	23.060	% 6,2	29
Zipre	892	23.436	26.030	% 7,5	33
Luxenburgo	630	73.313	114.370	% 5,3	23
Malta	515	14.684	28.220	% 3,5	28

Iturria: biztanleria, BPG eta langabezia, Eurostat; GGI, Nazio Batuak.

Azkenik, mapa honetan Europar Batasunaren egungo egoera ikus daiteke:



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=25001458>

- Urdin ilunean Europar Batasuna osotzen duten 27 estatu kideak agertzen dira.
- Arrosaz, Erresuma Batua, Europar Batasunetik irten den herrialdea.
- Urdin argian EBren estatu kide izateko hautagai ofizialak: Turkia, Montenegro, Serbia, Albania eta Ipar Mazedonia. Herrialde hauek Europar Batasunean sartzeko beharrezkoak diren egokitzapenak egiten ari dira haien sistema ekonomiko eta politikoetan.
- Urdinik argiengan hautagai izan daitekeen herrialdea, estatu kide izateko eskaria egin baitu: Bosnia-Herzegovina.
- Horiz, hautagai potentziala: Kosovo.



- Laranja, hautagai ofizialak izan ziren eta hautagaitza atzera bota zuten herrialdeak: Islandia, Norvegia eta Suitza. Herrialde hauek dituzten gizarte- eta ekonomia-datuak araberak, ez lukete inongo arazorik izango Europar Batasunean sartzeko.
- Berdez, Europar Batasunarekin elkartze-hitzarmena duten herrialdeak: Georgia, Moldavia eta Ukraina.

IV. EUROPAR BATASUNAREN HELBURUAK, **ANTOLAKETA ETA ZUZENBIDEA**

Lisboako Ituna indarrean sartu zenetik Europako Lehen Mailako Zuzenbidea jasotzen duten funtsezko tratatuak bi dira: Europar Batasuneko Ituna (EBI) eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Ituna (EBFI).

- EBIk (55 artikulua) Europar Batasunaren oinarri demokratikoak jasotzen ditu (balioak, helburuak), erakunde-sistemaren xedapen orokorrak, EBren kanpo ekintza eta segurtasun komuneko politika.

- EBFIk (358 artikulua) Europar Batasunaren eskumenak jasotzen ditu, Europako politikei buruzko arauketa, kanpo ekintza (merkataritzaren eta laguntza humanitarioaren arloetan), erakundeei buruzko xedapen espezifikoak eta finantza-xedapenak.

1. Helburuak eta balioak

Europar Batasunaren eta Estatu kideen oinarri dira honako balio hauek (EBIren 2. artikulua): gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak barne. Aldi berean, europar gizartearen ezaugarri dira aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Estatu kide batek balio horiek hausten baditu kide izateagatik dituen eskubideak etetea jaso dezake zigor gisa (EBIren 7. artikulua).

Europar Batasunaren helburuak hauexek dira (EBIren 3. artikulua):

- Bakea, bere balioak sustatzea eta bere herrien ongizatea bultzatzea.
- Hiritarrei askatasun, segurtasun eta justiziako eremua eskaintzea, barneko mugarik gabeko eremua, non pertsonen zirkulazio askea bermatuta baitago.
- Barne-merkatua ezartzea. Horrek dakar Europaren garapen iraunkorraren alde lan egitea, oinarri hauek kontutan hartuta: ekonomia-hazkunde orekatua

eta prezioen egonkortasuna; enplegu osoa eta gizartearen aurrerabidea jomuga dituen lehiakortasun handiko merkatuko ekonomia soziala; eta ingurumenaren babes-maila handia.

- Esklusio sozialaren eta bereizkeriaren aurka lan egitea; horretarako, honako hauek sustatzen ditu: gizarte-justizia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna eta haurren eskubideen babesa.
- Estatu kideen arteko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzea.
- Kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna errespetatzea.
- Ekonomia eta diru batasuna ezartzea, non dirua euroa izango baita.
- Nazioarteko harremanei begira, honako hauek bultzatzea: bakea, segurtasuna, planetaren garapen iraunkorra, herrien arteko elkartasuna eta errespetua, merkataritza askea, txirotasunaren ezabatzea eta giza eskubideak babestea.

Giza eskubideen babesari begira (EBIren 6. artikulua), Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen dira, Gutunak Itunen balio juridiko berbera izango duelarik. Aldi berean, Europar Batasuna Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzen zaio.

Europar Batasunak, nazioarteko erakundea bada ere, berezko herritarrak ditu, hain zuzen, estatu kideren bateko nazionalitatea duen pertsona oro. Hori dela eta Europar Batasunak bere herritarren berdintasunaren printzipioa errespetatuko du bere jardun guztietan (EBIren 9. artikulua).

Europako edozein estatuk, 2. artikuluan aipatzen diren balioak errespetatzen baditu eta horiek sustatzeko konpromisoa hartzen badu, kide izateko eskaria egin dezake (EBIren 49. artikulua). Bestalde, estatu kideetako edozeinek Europar Batasuna uztea erabaki dezake (EBIren 50. artikulua).

2. Eskumenak eta politikak

Europar Batasunean aurrera eramaten diren politikei esaten zaie politika komunak, estatu kide guztietan aplikatzen direlako. Estatu kideek Europar Batasunari igorri dioten subiranotasun arloen gain eratzen dira politika horiek, eta Europar Batasunaren erakundeek arautzen dituzte (Europako Parlamentuak eta Kontseiluak).

Europar Batasunak eskumen eskusiboa du gai gutxi batzuen gain eta horietan berak bakarrik egin ditzake legeak (EBFIren 2. artikulua 1. zenbakia). Gai horiek honako hauek dira (EBFIren 3. artikulua 1. zenbakia):

- aduana-batasuna;
- barne-merkatuak funtziona dezan lehiari buruz beharrezkoak diren arauak;
- diru gisa euroa darabilten estatu kideen diru-politika;
- itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioa;
- merkataritza-politika.

Europar Batasunak estatu kideekin batera partekatutako eskumena du gai gehiagotan. Halako kasuetan, Europar Batasunak lehentasuna du, berak eskumena baliatu ez duen neurrian ahal izango baitute estatu kideek gai horietan arautu (EBFIren 2. artikulua 2. zenbakia). Errealitatean ikus daitekeenez, Europar Batasunak sarri erabili du aukera hau eta politika ezberdinak martxan jarri ditu. Partekatutako eskumenak gai hauen ingurukoak dira (EBFIren 4. artikulua):

- barne-merkatua, berau funtziona dezan lehiari buruz beharrezkoak diren arauak izan ezik (eskumen eskusiboa delako);
- gizarte-politika, Itunean zehaztutako gaiei dagokienez;
- ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza;
- nekazaritza eta arrantza, itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioa izan ezik (eskumen eskusiboa delako);
- ingurumena;
- kontsumitzaileen babesa;
- garraioak;

- Europa barruko sareak;
- energia;
- askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua;
- osasun publikoaren arloan segurtasuna bermatzeko gai komunak;
- ikerketari, teknologia-garapenari eta espazioari dagozkien eremuetan, programak eta ekintzak;
- garapenerako lankidetzari eta laguntza humanitarioari dagozkien eremuetan, ekintzak burutzea.

Europar Batasunak ekintzak burutzeko eskumena izango du estatu kideen zeregina koordinatu, lagundu edo osatze aldera. Honako hauek izango dira ekintza horien eremuak (EBFIren 6. artikulua):

- giza osasunaren babesa eta hobekuntza;
- industria;
- kultura;
- turismoa;
- hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola;
- babes zibila;
- administrazioen arteko lankidetzak.

Azkenik, arlo batzuetan estatu kideen arteko politikak koordinatuko dira (EBFIren 5. artikulua): politika ekonomikoen kasuan Kontseiluak irizpide orokorrak onartuko ditu; enplegu-politiken eta gizarte-politiken kasuan Europar Batasunak politika horien koordinazioa bermatuko du.

Politika eta ekintzak zehaztu eta gauzatzeko orduan, Europar Batasunak:

- emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzea izango du helburu (EBFIren 8. artikulua);
- kontuan hartuko ditu eskakizun hauek: enplegu-maila handia sustatzea; gizarte-babes egokia bermatzea; gizarteko bazterkeriaren kontra borrokatzea; eta hezkuntzan, prestakuntzan eta giza osasunaren babesean maila handia lortzea (EBFIren 9. artikulua);
- sexu, arraza edo jatorri etniko, erlijio edo konbikzio, ezgaitasun, adin nahiz sexu-joeragatiko bereizkeria ororen kontra borrokatuko du (EBFIren 10. artikulua);

- garapen iraunkorra sustatzeko ingurumenaren babeserako eskakizunak kontutan hartuko dira politika guztiak arautzerakoan (EBFlren 11. artikulua).

3. Erakunde-antolaketa

Europar Batasunaren funtzionamendua demokrazia ordezkatzailan oinarrituta dago (EBIren 10. artikulua 1. zenbakia). Laburki esanda, hiritarrak Europako Parlamentuan ordezkaturik daude, estatu kideak Europar Kontseiluan eta Kontseiluan eta Europar Batasunaren interesak defendatzen duen erakundea Europar Batzordea da.

Europar Batasunaren erakundeak dira (EBIren 13. artikulua): Europako Parlamentua, Europar Kontseilua, Kontseilua, Batzordea, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Europako Banku Zentrala eta Kontu Auzitegia. Lehenengo bostak erakunde nagusiak dira eta beste biak erakunde ekonomikoak, Europako Inbertsio Bankuarekin batera, nahiz eta honek organo maila duen. Bestalde, bi kontsulta-organo daude: Ekonomia eta Gizarte Komitea eta Eskualdeetako Komitea.

Erakunde esparruaren helburuak dira Europar Batasunaren balioak sustatzea, helburuak betetzea, haren interesak, herritarrenak eta estatu kiderenak defendatzea eta haren politika eta ekintzen koherentzia, eraginkortasuna eta jarraitutasuna bermatzea (EBIren 13. artikulua).

Europako erakundeen arteko funtzio banaketa ez dator bat estatuen egungo sistema politikoetan indarrean dagoen Montesquieu eskemarekin. Haietan, Parlamentuak legegintza boterea du; Gobernuak, betearazlea, eta justizia administrazioak, botere judiziala. Europar Batasunean, legegintza funtzioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren artean banatzen da; botere betearazlea Kontseiluaren esku geratzen da, Europar Kontseiluaren partaidetza handiarekin, bai eta Batzordearena ere, eguneroko gobernuari dagokionez. Justizia administrazioa Justizia Auzitegiaren esku geratzen da.

a) Europako Parlamentua

Europako Parlamentuaren arauketa EBiren 14. artikuluan eta EBFiren 223.-234. artikuluetan jasotzen da. Egoitza Estrasburgon du.

Bere funtzioak hauexek dira:

- legeak eta aurrekontua onartzea, Kontseiluarekin batera;
- Europar Batasunaren erakundearen kontrol demokratikoa;
- Europar Batzordearen presidentea eta Batzordea bere osotasunean onartzen du eta zentsura-mozioaren bidez Batzordearen dimisioa eragin dezake;
- Europako Herriaren Defendatzailea hautatzen du.

Europako Parlamentua zuzeneko sufragio unibertsalaren bidez hautatzen da bost urterik behin eta gaur egun 705 diputatu ditu (eurodiputatuak). Legealdiaren hasieran presidentea aukeratzen da, baita hamalau presidenteorde ere. Eurodiputatuak taldeak osotzen dituzte politikakidetasunaren arabera.

Estatu kide bakoitzari dagokion diputatu kopurua biztanleriaren araberakoa da (baina ez da guztiz proportzionala): Alemania 96, Frantzia 99, Italia 99, Espainia 99, Polonia 99, Errumania 99, Herbehereak 99, Belgika 99, Grezia 99, Hungaria 99, Portugal 99, Suedia 99, Txekia 99, Austria 99, Bulgaria 99, Danimarka 99, Eslovakia 99, Finlandia 99, Irlanda 99, Kroazia 99, Lituania 99, Letonia 99, Eslovenia 99, Estonia 99, Luxenburgo 99, Malta 99 eta Zipre 99.

b) Europar Kontseilua

Europar Kontseiluaren arauketa EBiren 15. artikuluan eta EBFiren 235. eta 236. artikuluetan jasotzen da. Estatu kideen estatuburuek edo gobernuburuek, Europako Batzordeko presidentek eta Europar Kontseiluko presidentek berak osatzen dute. Orokorrean, erabakiak adostasunaz hartzen ditu. Egoitza Bruselan du eta sei hilean bi aldiz batu behar da.

Bere funtzioak hauexek dira:

- funtzio nagusia Europar Batasunaren garapena bultzatzea da eta, horretarako, norabide eta lehentasun politiko orokorrak zehazten ditu;
- kanpo eta segurtasun politika zehazten du;
- Batzordearen presidente izateko hautagaia aukeratzen du.

Europar Kontseiluko Presidentea erakundeak berak hautatzen du, bi urte eta erdiko agintaldirako, zeina behin berrizta baitaiteke. Europar Batasunaren kanpo ordezkari da kanpo eta segurtasun gaietarako.

d) Kontseilua

Europar Batasuneko Kontseiluaren (“Kontseilua” esaten zaiona) arauketa EBIren 16. artikuluan eta EBFiren 237-243 artikuluetan jasotzen da. Europar Kontseiluak bezala, erakunde honek estatu kideen interesak ordezkatzeko ditu.

Kontseiluan estatu kide bakoitzak ministro-mailako ordezkari bat izango du. Zenbait osaeratan batzen da; Gai Orokorraren Kontseilua da haien guztien lanen koherentzia bermatzeko arduraduna, eta Atzerri Arazoetako Kontseilua Europar Batasunaren kanpo ekintza prestatzekoa. Egoitza Bruselan du.

Erakunde honek bi funtzio nagusi ditu: alde batetik, legeak eta aurrekontua egitea eta onartzea, Europako Parlamentuarekin batera; bestetik, politikak zehaztea eta koordinazio-lana, bereziki estatu kideen politika ekonomikoak koordinatzea. Ikusten denez, botere legegilea eta betearazlea da aldi berean.

Kontseiluak gehiengo kualifikatuz hartzen ditu erabaki gehienak. Gehiengo kualifikatua lortzen da Kontseiluko kideen % 55 bilduta, betiere gutxienez hamabost kide barne badaude, eta estatu horiek gutxienez Europar Batasunaren biztanleriaren % 65 hartu behar dute. Kasu gutxi batzuetan gehiengo sinplea nahikoa zaio (administrazio-gaiak) eta beste gutxi batzuetan Kontseiluak aho batez erabaki behar du (oso gai garrantzitsuak, hala nola, estatu kide berri bat onartzea).

Kontseiluaren lana arintzeko Ordezkaritza Iraunkorren Komiteak lanak aurretik prestatzen ditu.

e) *Batzordea*

Europar Batzordearen arauketa EBIren 17. artikuluan eta EBFIren 244.-250. artikuluetan jasotzen da. Oso erakunde originala da, Europar Batasuna beraren interesak ordezkatzen baititu eta eguneroko gobernu gisa aritzen da. Egoitza Bruselan du.

Bere funtzioak hauexek dira:

- Europar Batasunaren interes orokorra sustatzen du;
- Europar Batasunaren Itunak eta zuzenbidea aplikatzen direla ikustatzen du (horregatik esaten zaio *itunen zaindaria*);
- aurrekontua eta programak gauzatzen ditu;
- koordinazio, gauzatze eta kudeaketa eginkizunak betetzen ditu;
- Europar Batasunaren kanpo ordezkaritza bereganatzen du, kanpo eta segurtasun politikari buruzko arloa izan ezik (Europar Kontseiluaren Presidentearen esku);
- legegintzarako eskumena du (legeak proposatzea).

Osaketari begira, Batzordearen kide dira estatu kide bakoitzeko herritar bat, Batzordearen Presidentea eta Atzerri- eta Segurtasun-Politikako Goi-ordezkaria barne hartuta. Beraz, gaur egun, 27 batzordekide daude. Pertsonalitate independenteak dira; bakoitza ez da bere herritartasunaren estatu kidearen ordezkaria (ezin dute inongo gobernu edo erakundetik jarraibiderik onartu ezta eskatu ere).

Europar Kontseiluak Batzordearen Presidente eta Atzerri- eta Segurtasun-Politikako Goi-ordezkaria izateko bi hautagai hautatzen ditu, Kontseiluak beste batzordekideak izateko hautagaiak eta Europako Parlamentuak onartzen ditu. Batzordean erabakiak gehiengo osoz hartzen dira.

f) Justizia Auzitegia

Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren arauketa EBIren 19. artikuluan eta EBFIren 251.-281. artikuluetan jasotzen da. Europar Batasuneko legediaren gain botere judiziala eragiten du. Egoitza Luxenburgon du.

Bere baitan hartzen ditu Justizia Auzitegia, Auzitegi Orokorra eta auzitegi espezializatuak (lehen instantzian zenbait gai ezagutuko dituzte). Justizia Auzitegia estatu kide bakoitzeko epaile banaz osatzen da eta hamaika abokatu nagusien laguntza du. Auzitegi Orokorrak, gutxienez, estatu kide bakoitzeko epaile bana izango du. Guztiak pertsonalitate independenteak izan behar dira.

Erakunde honek Tratatuaren interpretazioan eta aplikazioan zuzenbidea errespetatzen dela bermatzen du. Horren arabera, Europako Zuzenbidearen behin betiko interpretazioa egiteko eskumena duen organo juridikzional bakarra da, baita Europar Batasunaren erakundeen ekintzen baliorik eza egiaztatzeko ere. Azkenik, arau-haustek egindako estatu kideen kontra aurkeztutako salaketak ezagutuko ditu.

Ematen dituen epai eta interpretazioen bidez denei ezartzen zaien jurisprudentzia garatzen du: Europar Batasuneko erakundeei, estatu kideei, justizia-organo nazionaleri, enpresei eta norbanakoei.

g) Erakunde eta organo ekonomikoak

Europako Banku Zentrala (EBFIren 282.-284. artikulua) ekonomiaren eta diru batasunaren oinarritzko zutabea da. Euroa kudeatzen du eta Euroguneko diru politika zuzentzen du. Bere helburu nagusia da salneurrien egonkortasuna mantentzea. Presidentea eta Presidenteordeaz gain, estatu kideetako banku zentralen gobernadoreek parte hartzen dute. Egoitza Frankfurt-en du

Europako Kontu Auzitegiak (EBFIren 285-287 artikulua) Europar Batasunaren finantza kudeaketa egokia izan den ikustatzen du. Egoitza Luxenburgon du. Estatu kide bakoitzeko epaile batez osatzen da.

Europako Inbertsio Bankuak (EBFIren 308-309 artikulua) barne-merkatuaren garapen orekatu eta egonkorra lortzea du helburutzat. Maileguak ematen ditu helburu zehatz hauek dituzten proiektuak finantzatzeko: atzeratuen dauden eskualdeen garapena, Europa mailako azpiegituren hobekuntza, ingurumenaren babesa, industriaren lehiakortasuna indartzea, lanpostuen hazkundera, hezkuntza- eta osasun-azpiegituren modernizazioa.

h) Kontsulta-organoak

Ekonomia eta Gizarte Komiteak eta Eskualdeetako Komiteak aholkularitza eginkizunetan jardungo dute (EBFIren 300. artikulua).

Ekonomia eta Gizarte Komitea (EBFIren 301-304 artikulua) enpresaburuen eta langileen erakundeetako ordezkariak osotzen da. Erakunde legegileen proposamenen gain iritzia ematen du ekonomia eta gizarte-gaietan.

Eskualdeetako Komitea (EBFIren 305-307 artikulua) estatu kideetako eskualdeetako eta tokiko erakundeetako ordezkariak osotzen da. Erakunde legegileen proposamenen gain iritzia ematen du toki- eta eskualde-administrazioekin lotutako gaietan.

4. Zuzenbidea

a) Europako Lehen mailako Zuzenbidea

Europako bateratze prozesua arautzen duten itun guztiek osotzen dute Lehen mailako Zuzenbidea, itun eratzailak nahiz eraldatzaileak. Atal honen hasieran esan bezala, 2009tik aurrera indarrean dauden funtsezko bi testuak EBI eta EBFI dira. Lehen mailako arauketa hau Europar Batasunaren eta estatu kideen goreneko legeak dira, eta konstituzio nazionalen gainetik kokatzen dira.

Horretaz gain, EAEEko Ituna, oraindik indarrean dagoena, eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Europar Kontseiluak 2000. urtean onartutakoa. Europar Batasunak Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak

Babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzeko prozedura bukatzen duenean, testu hori Lehen mailako Zuzenbidea izango da.

b) Europako Zuzenbide Eratorria

Zuzenbide Eratorriko arauak Europar Batasunaren erakunde legegileek onartutakoak dira. Botere legegilea eragiten duten erakundeak Europako Parlamentua eta Kontseilua dira; Batzordeak ekimen eskubidea du. Itunek zehaztutako gaiak arautu ditzakete, hau da, Europar Batasunaren eskumen eksklusiboei buruzkoak (EBIren 3. artikulua), partekatutako eskumenen kasuan Europar Batasunari dagozkion arloei buruzkoak (EBIren 4. artikulua) eta koordinazioari buruzkoak (EBIren 5. eta 6. artikulua).

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako arauak legeak dira eta izan daitezke (EBFIren 288. artikulua):

- Erregelamendua: helmen orokorra du, osagai guztiei dagokienez bete beharrekoa da eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzen da.
- Zuzentaraua: jasotzaile diren estatu kideak behartuta daude zuzentaruak ezartzen duen emaitza lortzera, baina estatuko agintarien aukeran uzten dira modua eta baliabideak. Oinarri-lege edo lege marko baten parekoa da. Zuzentaraua ez da zuzenean aplikatzen, estatu jasotzaileak transposizio-araua onartu behar baitu eragina izan dezan.
- Erabakia: bete beharrekoa da bere elementu guztietan baina soilik zehazten dituen jasotzaileentzat. Jasotzaileak estatu kideak edo partikularrak izan daitezke.

Europar Batasunaren erakundeek irizpideak eta gomendioak ere onartu ditzakete baina ez dira lotesleak. Orokorrean, irizpideek gai zehatz baten inguruan Kontseiluaren edo Batzordearen iritzia adierazten dute eta gomendioak arlo baten inguruan estatu kideek euren legediak bateratzeko proposamenak dira.

Legeak egiteko prozedurak bi dira: legegintzako prozedura orokorra eta legegintzako prozedura berezia (EBFIren 289. artikulua). Lehenengoaren bitartez Europako Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin arautzen dute eta legegintzarako bide orokorra da. Legegintzako prozedura orokorraren garapena hauxe da (EBFIren 294. artikulua):

- Batzordeak ekimena du proposamenak egiteko eta Kontseiluak proposamena zehazten du;
- Europako Parlamentuak proposamena onartu dezake eta legea horrela onartzen da, atzera bota dezake edo zuzenketak sar ditzake;
- Kontseiluak zuzenketak onartzen baditu, legea horrela onartzen da;
- Kontseiluak ez baditu zuzenketak onartzen kontziliazio-prozesua ematen da bi erakundeen artean;
- kontziliazio-prozesuan zuzenketen inguruan adostasuna lortuz gero, araua horrela onartzen da;
- kontziliazio-prozesuan adostasunik ez bada lortzen, bi erakundetako edozeinek araua atzera bota dezake.

Prozedura bereziaren bitartez Europako Parlamentuak Kontseiluaren partaidetzaz onartzen ditu legeak, edo, bestela, Kontseiluak onartzen ditu Europako Parlamentuaren partaidetzaz.

Azkenik, bi erakundeek Batzordearen esku utz dezakete legeak egiteko boterea (edozein parlamentuk bere gobernuari egiten dion delegazioaren modura), bereziki aurretik onartutako legeen eduki teknikoa garatzeko.

VI. EUROPAR BATASUNeko BARNE MERKATUA

ETA EKONOMIA ETA DIRU BATASUNA

1. Barne-merkatua

Europar Batasuneko estatu kide guztien lurraldeak hartzen dituen eremu ekonomikoa da barne-merkatua, non produkzio, lan eta kapital faktoreak batetik bestera askatasunez mugitu baitaitezke, merkatu nazional bat izango balitz bezala.

1970eko urtarrilaren 1a zen merkatu batua martxan jartzeko aurreikusitako data. Salgaien zirkulazio askea 1968an martxan jarri bazen ere, langile eta zerbitzuen zirkulazio askea ez zen guztiz garatu, are gutxiago kapitalen zirkulazio askea. Horretan eragin zuzena izan zuen 1973an eztanda egin zuen nazioarteko krisi ekonomikoak. Gainera, benetako merkatu batua eratzeko zenbait oztopo izan ziren 1980ko hamarkadan.

1986ko Europako Agiri Bakunak merkatu batua lortzeko bultzada egin zuen. Barne-merkatuaren kontzeptua ekarri zuen, barne-mugarik gabeko eremua, non bermatuta geratuko baitziren salgai, pertsona, zerbitzu eta kapitalen zirkulazio askea (egungo EBFiren 26. artikulua 2. zenbakia). Horiek dira Europar Batasunean ematen diren lau askatasunak, zeinek debekatzen baitituzte nazionalitatean oinarritutako diskriminazioak. Horrela, barne-merkatua eremu ekonomiko bateratu gisa agertu zen, eta ezabatu egin ziren estatu kideen arteko muga-zergak eta oztopo mota guztiak (teknikoak, fisikoak, diruzkoak).

Barne-merkatua 1993ko urtarrilaren 1ean martxan jarri zen. Orduetik aurrera Europar Batasuneko kide bilakatzen diren estatu guztiak barne-merkatua sartzen dira zuzenean (dagozkion arauketa guztiak barne ordenamendura moldatu behar dutelarik).

2. Salgaien zirkulazio askea

Salgaien zirkulazio askea EBFiren 28.-37. artikuluetan arautzen da. Askatasun horren bitartez, estatu kideen artean merkataritza askeko gune bat eta kanporako muga-zergen batasuna eratu dira.

Merkataritza askeko guneak zera ekarri du: estatu kide bateko edozein enpresak egindako produktua beste estatu kide batera eraman ahal izatea, inolako oztoporik gabe. Hori egin ahal izan da ezabatu egin direlako muga-zergak, ondorio berdina duten tasak, eta inportazioen gaineko kopuruzko murriztapenak. 1968ko uztailaren 1etik aurrera indarrean dago arauketa hau.

Araudi honek salbuespen bat du: estatu kideek inportazioari edo esportazioari debekuak edo mugak ezarri ahal izango dizkiote ordena publikoan, moralean eta segurtasun publikoan oinarritutako arrazoiengatik, edo pertsonen eta animalien osasunaren eta bizitzaren babesak, landareen kontserbazioak, arte nazionalaren babesak edo industria jabegoaren babesak eskatuta. Hala ere, Justizia Auzitegiak oso hertsiki interpretatu du salbuespen hau eta oso kasu gutxitan onartu du horrelakorik, ahal den guztietan murrizketa baten ordeztu beste neurri mota bat hartu behar dela adierazi baitu, salgaien zirkulazio askea ziurtatzeko.

Kanporako muga-zerga batzearen ondorioz, estatu kide guztiek muga-zerga berdinak ezartzen dizkiete Europar Batasunetik kanpo etortzen diren produktuei. Horrela, berdinak dira Hanburgoko kaitik sartzen den produktuak Alemaniako administrazioari ordaindu behar dion muga-zerga eta, Bilboko kaitik sartuz gero, Espainiako administrazioari ordaindu behar diona.

Salgaien zirkulazio askearen aplikazio-eremu materialari dagokionez, lehenik eta behin araudiak estatu kide batean jatorria duten ondasun mota guztiei eragiten die. Horiek izan daitezke estatu kide batean osorik lortu edota fabrikatu diren produktuak, hala nola mineralak, landare-erreinuko produktuak, ehiza eta arrantzako produktuak, lurzorutik edo itsas lurpetik ateratako produktuak, eta baliabide horietatik edo horien eratorrietatik lortutako produktuak. Bigarrenik, Europar Batasunean jatorria duten ondasunak ere

badira produktu hauek: hainbat estatutan, Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeak barne, fabrikazio-prozesu bat jasan ondoren, Europar Batasuneko estatu kide batean ekonomikoki justifikatua dagoen azken eraldaketa nabarmena dutenak, hau da, eraldaketa horrek produktu berri bat erakartzen du edo fabrikazio-egoera garrantzitsua adierazten du.

Bestalde, salgaien zirkulazio askearen araudia aplikatzen zaie Europar Batasunetik kanpo datozen produktuei ere, betiere muga-zerga ordaindu eta gero. Produktu horiek askatasunez zirkulatzen dute Europar Batasunean, estatu kide batetik bestera eramaten direnean.

Azkenik, Europar Batasuneko barne merkatuak estatu kideetako lurraldea hartzen du, baina ez osorik. Estatu kide batzuen lurralde eremu batzuk (eskualdeak ala udalerriak) Europar Batasuneko barne merkatutik kanpo daude, arrazoi ekonomikoak direla medio. Hauexek dira: Alemaniako Heligoland irla eta Büsingen lurraldea; Danimarkako Groenlandia eta Feroe Irlak; Espainiako hiri autonomoak (Ceuta eta Melilla); departamentuak ez diren itsasoz haraindiko Frantziako lurraldeak (Mayotte, Kaledonia Berria, Wallis eta Futuna, Polinesia eta Antartikako lurrak); Italiako Livigno eta Campione udalerriak.

Bestalde, kontrako zentzuan, badaude hiru herrialde txiki Europar Batasuneko muga-batasunaren barnean daudenak: Monako, San Marino eta Andorra.

3. Langileen zirkulazio askea

Langileen zirkulazio askea EBFiren 45-48 artikuluetan arautzen da. Askatasun hau da Europar Batasuneko edozein estatu kideetako pertsona orok duen eskubidea beste estatu kide batera mugitzeko eta bertakoek dituzten baldintza berdinekin soldatapeko lanpostu bat eskuratzeko. Askatasun honek ez du lanpostuaren eskuratzeari ziurtatzen; babesten duena da estatu kide baten nazionala den langileak, beste estatu kide batean lanpostu bat eskuratzeko

orduan, tratu-berdintasuna izatea (nazionalitatean oinarritutako diskriminazioa debekatuz).

Langileen zirkulazio askearen araubidea ezartzen zaie soldatapeko langile guztiei, edozein sektoretan lan egiten dutela ere. Salbuespen bakarra administrazio publikoaren lanpostuak dira. Hala ere, Justizia Auzitegiak ezarritako jurisprudentziaren arabera, dagokion estatuaren nazionalitatea eska daiteke botere publikoaren egikaritzea beharrezkoa den postuetan bakarrik. Eta aukera da, hau da, eskudun den agintaritzak erabaki dezake nazionalitatea ez eskatzea salbuespenean kokatzen diren lanpostu horietan.

Askatasun horren onuraduna estatu kide baten nazionala den pertsona fisikoa da, beste estatu kide batera mugitzen dena soldatapeko postu batean lan egitera. Beraz, hiru baldintza agertzen dira: estatu kide baten nazionalitatea edukitzea; beste estatu kide batera mugitzea; lan arrazoiengatik mugitzea. Bigarren mailako onuradunak ere badaude, hain zuzen, askatasunaren onuraduna den langilearen senitarteko hauek: ezkontidea; 21 urte baino gazteagoak diren ondorengoak edo nagusiagoak bere kargura badaude; langilearen edo bere ezkontidearen aurrekoak bere kargura badaude.

Askatasun horren onuraduna den langileari dagozkion eskubideak:

- Beste estatu kide bateko lurraldean sartzea, egoitza izatea (lanpostua lortuz gero) eta bertan bizilekua finkatzea (lan bizitzaren bukaeran edo ezintasun iraunkorragatik).
- Soldatapeko enplegu baterako hautagai izatea: estatu kide bateko herritar orok eskubidea du beste estatu kide batean soldatapeko enplegu baterako hautagai izateko, beste estatu kide horretako legediak bere langile nazionalentzat ezarritako baldintza eta eskubide berdinekin.
- Lan-baldintzak eta abantaila sozialak: estatu kide bateko herritar den langilea ezin da nazionalitateagatik diskriminatua izan, beste estatu kide bateko lan-baldintzak direla-eta (soldata edo kanporatze-baldintzak barne); gainera, langile nazionalek dituzten lanpostuetatik eratortzen diren abantaila sozial eta fiskal berdinak izango ditu beste estatu kide bateko herritar den langileak.

- Gizarte Segurantzaren estatu kide batean lan egiten duen beste estatu kide bateko herritarrak lan egiten duen estatuko Gizarte Segurantzaren sisteman sartzen da.

Bigarren mailako onuradunek eskubide berdinak dituzte, baita honako hauek ere: langilearen seme-alabek tratu-berdintasuna bermatuta dute hezkuntza-zentroetan onarpen-baldintzei begira; bizilekua duten estatu kidearen Gizarte Segurantzaren prestazioak bermatuta dituzte senitarteko guztiek.

4. Egoitza kokatzeko eskubidea eta zerbitzuak eskaintzeko askatasuna

Zerbitzuen zirkulazio askea EBFiren 49.-62. artikuluetan arautzen da. Askatasun bakar bati buruz hitz egiten bada ere, elkarri lotutako bi askatasunen aurrean gaude: egoitza kokatzeko eskubidea eta zerbitzuak eskaintzeko askatasuna.

Egoitza kokatzeko eskubidearen kasuan, bi modalitate praktiko bereiz daitezke:

- Alde batetik, estatu kide bateko herritarra den pertsona fisiko batek eskubidea du beste estatu kide batean profesional autonomo gisa egoitza kokatzeko, estatu kide horrek bere herritarrentzat ezarritako baldintza berdinetan.

- Bestalde, estatu kide bateko herritarra den pertsona orok (bai fisikoak, bai juridikoak —beraz, estatu kide batean egoitza duten enpresak eta merkataritza-elkarteak barne—) beste estatu kide bateko lurraldean enpresak sor eta kudea ditzake (edo enpresa baten filialak, agentziak eta sukurtsalak), betiere estatu kide horretako herritarrentzat ezarritako baldintza berdinetan.

Zerbitzuen eskaintza askearen kasuan, askatasun hau zera da: estatu kide bateko herritar den eta estatu kide batean egoitza duen profesional autonomo batek beste estatu kide batera joateko eta han lanean aritzeko eskubidea, estatu kide horretako herritarrentzat ezarritako baldintza berdinetan. Zerbitzuen eskaintzak hiru modalitate praktiko ditu:

- Estatu kide bateko herritar den profesional autonomoa, egoitza duen estatu kidetik beste estatu kide batera mugitzen da zerbitzu bat eskaintzera. Profesional autonomoak, estatu kide baten nazionalitatea badu ere, Europar Batasunetik kanpoko hirugarren estatu batean egoitza badu, askatasun hau ez da aplikatzen (nahiz eta estatu kide batera mugitu zerbitzua eskaintzera).
- Zerbitzuaren jasotzailea beste estatu kide batera mugitzea. Zerbitzuak eskaintzeko askatasunaren dimentsio pasiboa da: Alemaniara tratamendu medikoa jasotzera doan frantziar herritarra; Espainiara turismo-bidaia egiten duen danimarkar herritarra; Italiara ikasketak egitera doan suediar herritarra; Greziara futbol-partida bat ikustera doan austriar herritarra. Kasu honetan, profesional autonomoak zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak askatasunarengatik babesa jasotzen dutenez, praktikan, estatu kide baten nazionalitatea duen zerbitzuaren jasotzaileak etekina ateratzen du, inongo diskriminaziorik jasan ezin duelarik.
- Estatu kide batetik bestera zerbitzua bera mugitzea. Adibidez, txosten juridiko bat postaz bidaltzea, telebista-saioak emititzea, Interneten bidez zerbitzuak eskaintzea.

Hiru kasu horietan, zerbitzua eskaintzen duen profesional autonomoak edo zerbitzua jasotzen duenak —betiere estatu kide bateko herritar badira— beste estatu kideko herritarrek dituzten eskubide berak izango dituzte.

Soldatapeko langileekin gertatzen den bezala, profesional autonomoaren senitartekoak askatasun honen bigarren mailako onuradunak dira: ezkontidea; 21 urte baino gazteagoak diren ondorengoak edo nagusiagoak bere kargura badaude; langilearen edo bere ezkontidearen aurrekoak bere kargura badaude.

Zerbitzuak eskaini dezaketen heinean, pertsona juridikoak badira ere askatasun honen onuradunak. Zehazki Zuzenbide Zibileko edo Merkataritza Zuzenbideko elkarteak, baita kooperatibak ere, eta orokorrean Zuzenbide Publikoko edo Pribatuko pertsona juridiko guztiak, betiere irabazi-asmoa badute.

Askatasun hori onuragarri da lanbide liberal eta ekintza ekonomiko guztientzat (industrialak, merkataritzakoak edo eskulangintzakoak). Praktikan,

edozein estatu kidean aurrera eraman ahal izango da irabaziak lortzeko asmoarekin egiten den edozein ekintza ekonomiko edo profesionala, nazionalitatea dela-eta inolako diskriminaziorik jasan gabe.

5. Kapitalen zirkulazio askea

Kapitalen zirkulazio askea EBFiren 63.-66. artikuluetan arautzen da. Askatasun hau beste hiru askatasunak baliatzeko oinarria da. Era berean, kapitalen erabateko liberalizazioak sistema ekonomikoak indartzen ditu, beste estatuetan zuzeneko inbertsioak bultzatzen dituelako eta era egokian aurrezteko laguntza delako.

Kapitalen zirkulazio askea lortzeko, kapitalen mugimenduen gaineko murriztapenak debekatzen dira, estatu kideen artean nahiz estatu kideen eta Europar Batasunetik kanpoko estatuen artean (askatasun honek Europar Batasunaren lurraldetik haratago eragina du). Horrela, askatasun hau praktikan dagoenetik, estatu kideen artean merkataritzako diru-operazioak egitean honako hauek debekatuta daude:

- Europar Batasunean egoitza duten pertsonen egindako kapitalen mugimenduen gaineko murriztapenak;
- nazionalitatean edo egoitzan oinarritutako diskriminazioak;
- inbertsioen jatorrian edo helmugan oinarritzen diren diskriminazioak.

Askatasun horren edukiaren arabera, Europar Batasuneko norbanakoek (herritarrek edo enpresek) ez dute beren diruaren edo ondasun higikorren mugimenduak egiteko baimenik behar, eta eragiketok askatasun osoz egin ditzakete:

- munduko beste edozein estatutan banku-kontuak zabaltzea eta haietara mugagabeko diru kopuruak mugitzea, agintariei baimenik eskatu behar izanik gabe;
- bakoitzaren estatu kidean banku-kontuak zabaltzea beste estatu kide baten dirutan;

- atzerritar banku bati mailegu bat eskatzea, agintariei baimenik eskatu behar barik;
- atzerriko burtsetan ondasun higiezonei buruzko eragiketak egitea.

Kapitalen mugimenduen liberalizazioak barne-merkatuaren sorrera erraztu du:

- enpresek finantza-zerbitzu egokiagoak lortu dituztelako;
- aurrezkiaren banaketa orekatuagoa lortu delako;
- politika ekonomikoetan diziplina handiagoa lortu delako.

6. Ekonomia eta Diru Batasuna

1993an barne merkatuaren martxan jartzeak Ekonomia eta Diru Batasunarekin hasteko aukera ematen zuen. 1994an erabaki zen etorkizuneko diru batuaren izena: euroa. Diru hori hartzeko estatu kideek bete beharreko baldintzak ere ezarri ziren (bateratasunerako irizpideak):

- inflazioa ez izatea inflaziorik txikiena duten hiru estatu kideen batezbestekoa baino 1,5 puntu handiagoa;
- interes-tipoak ez izatea interes-tiporik baxuenak dituzten hiru estatu kideen batezbestekoa baino 2 puntu handiagoak;
- BPGaren % 3 baino handiago ez den defizit publikoa;
- BPGaren % 60 baino handiago ez den zor publikoa;
- diru nazionalaren truke-tipoaren egonkortasuna (balio galerarik ez jasatea).

1998aren amaieran euroa hartuko zuten estatu kideak zehaztu ziren (baldintzak betetzen zituztelako), Eurogunea sortu zelarik: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak eta Portugal. Greziak hasieran ez zituen baldintzak betetzen, baina 2000. urtean bete zituen; Suediak bete ahal zituen baina erreferendumean herriak euroari ezetza eman zionez, nahita jarraitzen du bete gabe. Erresuma Batuak eta Danimarkak baldintzak betetzen zituzten, baina dirutzat euroa ez izatea

erabaki zuten (Maastrichteko Itunak bi herrialde horientzako xedapen berezia jaso zuten). Aldi berean, Europako Banku Zentrala sortu zen eta estatu kideen Banku Zentralek ordura arte izandako eskumenak bereganatu zituen.

1999an euroa sortu zen. Hasiera batean, euroa banku-eragiketak egiteko soilik sortu zen, fisikoki ez baitzen existitzen. 2002ko urtarrilaren 1ean sartu zen euroa zirkulazioan, eta otsailaren 28ra arte Euroguneko estatu kideetako diru nazionalekin bizi izan zen. 2002ko martxoaren 1etik aurrera, Euroguneko diru bakar bihurtu zen.

2004ko zabalkundearen ondoren EDB martxan jartzeko prozesuaren erritmoa azkartu da. Horrela, dagozkion baldintzak bete ondoren, hasierako hamabi estatu kiderekin batera honako hauek euroa dute diru gisa ere: 2007tik Esloveniak; 2008tik Ziprek eta Maltak; 2009tik Eslovakiak; 2011tik Estoniak; 2014tik Letoniak; eta 2015etik Lituaniak.


EDB abian jarritz geroztik, erraztu eta argitu egin da euroa dirutzat hartu duten estatu kideen arteko merkataritza, diruen gaineko trabak eta oztopoak desagertu direlako. Honako hauek dira onurak (teorian behintzat):

- transakzio-kostuak ezabatzea.
- diruen arteko truke-tipoen segurtasunik eza desagertzea;
- finantza-erakundeen (bankuak, aurrezki kutxak, eta abar) arteko lehia handitu da, eta, ondorioz, finantza-aukerak handitu eta hobetu egin dira;
- Europako Banku Zentralaren politika antiinflazionistak prezioak egonkortu ditu;
- EDBk produzitzaileen lehia handitu duenez, produktuen eskaintza ere handitu egin da, eta kontsumitzaileek prezioak Eurogune osoan konpara ditzakete.

Gaur egun EDB EBFiren 119.-144. artikuluetan arautzen da. Europar Batasuneko kide guztiek EDBn sartu behar dute, betiere dagozkion baldintzak bete ondoren. Erresuma Batua Europar Batasunetik irten eta gero, Danimarka da estatu kide bakarra salbuespen-klausula duena, beraz, berak erabakiko du noiz sartu, baldintzak bete eta gero, noski. Bulgariak, Errumaniak eta Kroaziak al bait lasterren (2024 aldera) Eurogunean sartzeko asmoa dute. Polonia eta Hungaria es dute oraingoz EDB sartu nahi (haien egungo gobernuek ez dira

oso europazaleak eta nahikoa dute merkatu batuarekin). Txekiako Errepublikak jarrera berdintsua bazuen ere euroaren alde agertzen ari da azken urteotan. Azkenik Suediako iritzi publikoa euroaren kontra agertzen da eta gobernu baldintzaren bat bete gabe utzi behar izaten du urtero (interes tipoekin jokutzen dute orokorrean).

Mapa honetan, urdinez Eurogunea osotzen duten Europar Batasuneko estatu kideak agertzen dira. Berdez Eurogunean sartu behar diren Europar Batasuneko beste estatu kideak. Marroiz, Danimarka. Horiz eta morez, Europar Batasuneko estatu kideak ez izan arren, euroa diru gisa erabiltzen duten herrialdeak: alde batetik, horiz, Andorra, Monako, San Marino eta Vatikanoa, gai honen inguruan Europar Batasunarekin hitzarmena duten herrialdeak; bestetik, morez, Kosovo eta Montenegro, independentzia lortzerakoan berezko dirua izateari uko egin zioten eta zuzenean euroa erabiltzea erabaki zuten herrialdeak.



Europako Banku Zentrala

Europako Banku Zentralak (EBZ), estatu kideetako banku zentral nazionalekin batera, Banku Zentralen Europako Sistema (BZES) osatzen du. Horren barruan, gaur egun Eurogunean dauden hemeretzi estatuak *Eurosistema* osatzen dute (EBZk ezarri zuen izena), eta hemeretzi estatu kide horiek bakarrik hartzen dituzte euroaren inguruko erabakiak.

BZESren helburu nagusia da salneurrien egonkortasuna mantentzea. BZESren funtzioak:

- Europar Batasunaren diru-politika definitzea eta ezartzea;
- ezarritako truke-tipoei buruzko politikaren inguruan dibisen eragiketa egokiak egitea;
- estatu kideen dibisen erreserba ofizialak gordetzea eta kudeatzea, eta ordainketa-sistemen funtzionamendu ona bultzatzea.

Europako Banku Zentrala da BZESren oinarritzko organoa. Egoitza Frankfurtan du, eta 1999ko urtarrilaren 1ean hasi zen jardunean. Independentzia osoz jokatzen du, eta BZESri dagozkion funtzioak betetzen dituela ziurtatzen du. Funtzio hori Europako Banku Zentralak berak zuzenean egiten du, edo estatu kideetako banku zentral nazionalen bitartez (EBZren agentziak dira praktikan). EBZren funtzioak:

- billeteak eta txanponak jaulkitzea, Eurogunean billeteak jaulkitzeko baimena eman dezakeen organo bakarra baita;
- Europako eta mundu mailako diru-lankidetzak (lan-harremanak ditu Europar Batasuneko eta munduko erakunde eta organoekin);
- finantza-sistema egonkortzea eta banku-sektorea kontrolatzea.

VI. EUROPAKO HERRITARTASUNA

Merkatu batuaren arauketan jasotzen diren lau askatasunak martxan jarri zirenean, Justizia Auzitegia oso interpretazio zabala egiten hasi zen langileen eta zerbitzuen zirkulazio askearen inguruan. Denborarekin, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak europar herritar guztien zirkulazio askea eratu du. Beraz, gaur egun, praktikan pertsona guztiek —ez bakarrik soldatapeko langileak eta autonomoak— askatasuna dute Europar Batasuneko lurralde guztian zehar mugitzeko.

Egoera hori itunetan bermatuta dago. Horrela, estatu kideren bateko nazionalitatea daukan pertsona oro da Europar Batasuneko hiritar (EBIren 9. artikulua). Europar Batasuneko hiritartasunak ez du ordeztzen estatu kide bakoitzeko nazionalitatea; aitzitik, erantsi egiten zaio. Europar hiritarrek dituzten eskubideen arauketa EBFIren 20-25 artikuluetan jasotzen da. Hauexek dira:

a) Estatu kideetako lurraldean askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea.

Justizia Auzitegiak egindako interpretazio zabalkorrari esker, askatasun honek eskubide zehatz hauek biltzen ditu:

- Estatu kide baten herritar orok eskubidea du beste estatu kide baten lurraldera mugitzeko eta bertan lanpostu bat bilatzeko estatu horretako herritarren baldintza berberetan. Lana lortzen badu, langileen zirkulazio askeari buruzko arauketa aplikatzen zaio.
- Beste estatu kide bateko lanbide-heziketako ikastegietan eta unibertsitatetan ikasteko eskubidea, estatu horretako herritarren baldintza berberetan.
- Estatu kide batean bizilekua duen pertsona orok eskubidea du Europar Batasunetik zirkulatzeko eskubidea, zerbitzuen jasotzaile gisa.
- Estatu kide baten herritar orok, beste estatu kide baten lurraldera mugitzen denean, eskubidea du laguntza medikoa jasotzeko estatu horretako herritarren baldintza berberetan.

- Langileak ez diren europar hiritarrek eskubidea dute bizilekua finkatzeko beste estatu kide baten lurraldean.

b) Hautesle zein hautagai izateko eskubidea, bai Europako Parlamenturako hauteskundeetan, bai eta bizileku duten estatu kideetako udal-hauteskundeetan ere, estatu horretako herritarrek dituzten baldintza berberetan.

Europar hiritar orok eskubidea du Europako Parlamentuko hauteskundeetan parte hartzeko bizilekua duen estatu kidean. Alde batetik, estatu kide horretan aurkezten diren hautagai-zerrendetako bati botoa emateko eskubidea du. Bestetik, estatu kide horretan aurkezten diren hautagai-zerrendetan hautagai izateko eskubidea du. Eskubide honek Europako Parlamentuaren legitimitatea indartu du.

Aldi berean, europar hiritar orok eskubidea du bizilekua duen estatu kidearen udal hauteskundeetan parte hartzeko. Alde batetik, bizilekua duen udalerrian aurkezten diren hautagai-zerrendetako bati botoa emateko aukera du. Bestetik, udalerririk horretan aurkezten diren hautagai-zerrendetan hautagai izateko aukera du. Eskubide hau udal-hauteskundeetara mugatzen da (eskualde-hauteskundeak kanpo gelditzen dira).

d) Herritar direneko estatu kideak ordezkariarik ez daukan hirugarren herrialderen baten lurraldean, beste edozein estatu kideetako agintari diplomatiko eta kontsularren babesa hartzeko eskubidea, estatu horretako herritarren baldintza berberetan.

Europar hiritar orok edozein estatu kideetako ordezkari diplomatiko edo kontsularrengandik jaso dezakeen babesa kasu hauetan eman beharreko laguntzan datza: heriotza, istripua, gaixotasun larriak, atxiloketa, indarkeria-ekintzak, aberriratzea.

Horretaz gain, ordezkari diplomatiko edo kontsularrak beste edozein laguntza eskain dezake.

e) Europar Batasuneko hizkuntza ofizialetako bat erabiltzeko eta erantzuna hizkuntza horrexetan jasotzeko eskubidea, Europako Parlamentuari eskaerak egin, Europako Herriaren Defendatzailearengana jo eta Europar Batasuneko erakunde eta kontsulta-organoei zuzentzean.

Eskubide hau europar hiritar orori dagokio, baita bizilekua edo egoitza estatu kide batean duen pertsona fisiko eta juridiko orori ere, nahiz eta europar hiritarra ez izan. Honek Europar Batasunaren erakundeen funtzionamenduaren gardentasuna handitzen laguntzen du.

Europako Parlamentuari eskaera-eskubidearen bitartez hauek egin daitezke: informazioa eskatu, legegintzan kontuan hartzeko proposamenak egiten edo parlamentuaren batzorde bati galdera egin. Kasu guztietan, hiritarrak dagokion parlamentu-batzordearen idatzizko erantzuna jasoko du, hizkuntza berberean (betiere Europar Batasunaren hizkuntza ofiziala bada).

Europako Herriaren Defendatzailearengana jotzeko eskubideak Europar Batasunaren erakundeen ekintzetan kudeaketa eskasari buruzko erreklamazioak egitea ahalbidetzen du. Defendatzaileak erreklamazioa egiaztatu ondoren txostena egin eta igorriko dio dagokion erakundeari eta Europako Parlamentuari. Txostena publikoa denez, dagokion erakundea kasua konpontzeko erantzuna ematera behartuta egongo da.

VII. EUROPAR BATASUNAREKIN LOTUTAKO

EUROPAKO BESTE ERAKUNDEAK

1. Europako Esparru Ekonomikoa

1960an sortu zen Europako Merkataritza Askeko Hitzarmena (*European Free Trade Agreement – EFTA*). Hasierako estatu kideak Austria, Danimarka, Portugal, Norvegia, Suedia, Suitza eta Erresuma Batua izan ziren. Ondoren, kide bihurtu ziren Finlandia, Islandia eta Liechtenstein. Estatu horiek ez zuten garatu nahi Europako Erkidegoek osatu zuten Merkatu Batua, merkataritza askeko gune bat sortzea nahiko zelakoan. Hala eta guztiz ere, Europako Erkidegoen eta haren estatu kideen garapena ikusita, EFTAko estatu gehienak apurka-apurka Europar Batasunean sartu dira.

1992an erakundearen moldaketa egitea erabaki zen, eta Europako Esparru Ekonomikoa antolatu zen. Gaur egun, Europako Esparru Ekonomikoko kideak dira Europar Batasuneko estatu kideak, Islandia, Liechtenstein eta Norvegia (Suitzako herritarrek erakunde berrian sartzeko ezezko botoa eman zuten erreferendumean). Erresuma Batua ere bazen kidea, baina Europar Batasuneko kide izateari utzi zionean 2020an, aldi berean, Europako Esparru Ekonomikoko kide izateari utzi zion.

Europako Esparru Ekonomikoaren helburua da salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea bermatzea, Europar Batasunak gai horretaz duen araubidea aplikatuz; bestetik, lankidetzaren bitartez murriztu egin nahi dituzte estatu kideen eskualde- eta gizarte-ezberdintasunak.

Era berean, enpresen ekintzak eta merkataritza-harremanak bultzatzeko, Europar Batasuneko zenbait politika Europako Esparru Ekonomiko osoan ezarri nahi dituzte: ingurumena, kontsumitzaileen babesa, ikerkuntza eta garapena, hezkuntza, eta abar.

Mapa honetan Europako Esparru Ekonomikoko kideak agertzen dira: urdinez, Europar Batasuneko estatu kideak; berdez, Islandia, Liechtenstein eta Norvegia



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=98638321>

2. Schengen Eremua

1995ean adostutako Schengen Hitzarmenak herrialdeen barneko mugak kentzeko eta kanpo mugak parekatzeko helburua du. Eremuko kideak diren herrialdeen nazionalitatea duten hiritarrak askatasunez mugitu daitezke herrialde horien lurraldean zehar, muga kontrolik ez dagoelarik.

Gaur egun, hogeita sei herrialdek osatzen dute eremua. Hogeita bi herrialde Europar Batasuneko kideak dira: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka (Groenlandia eta Feroe Irlak izan ezik), Eslovakia, Eslovenia, Espainia (Ceutak eta Melillak egoera berezia izanik), Estonia, Finlandia, Frantzia (itsasoz haraindiko lurraldeak izan ezik), Grezia, Hungaria, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Polonia, Portugal, Suedia

eta Txekia. Horiekin batera, Islandia, Liechtenstein, Norvegia (Svalbard izan ezik) eta Suitza. Monakok, San Marinok eta Vatikanok mugak zabalik dituzte Schengen Eremuko herrialdeekin.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=42820992>

Aurreko mapan agertzen dira, urdinez, Schengen Eremua osotzen duten herrialdeak; eta laranja, Schengen Eremuan sartzeko baldintzak bete behar dituzten Europar Batasuneko estatu kideak (Bulgaria, Errumania, Kroazia eta Zipre). Irlanda da salbuespena onartuta duen herrialde bakarra eta, oraingoz, ez da Schengen Eremuan sartuko.

3. Europa Erdialdeko Merkataritza Askeko Hitzarmena

Europa Erdialdeko Merkataritza Askeko Hitzarmena (ingelesezko siglen bidez ezaguna, *Central European Free Trade Agreement* - CEFTA) Poloniak, Hungariak eta Txekosloveniak sinatu zuten 1992ko abenduaren 21ean, eta 1994ko uztailan indarrean sartu zen (ordurako Txekia eta Eslovakia bi estatu ziren). 1996an Eslovenia, 1997an Errumania, 1998an Bulgaria eta 2003an


Kroazia CEFTAko kide bilakatu ziren.

Erakundearen helburua da estatu kideetan demokrazia eta merkatu askea indartzea, herrialde horiek Europar Batasuneko kide bihurtzeko beharrezkoak diren baldintzak lortzen laguntzeko. Praktikan, Europar Batasunean sartzeko prestakuntza-epe gisa balio du.

CEFTAko kide izateko bete beharreko baldintzak:

- Merkataritzaren Mundu Erakundearen arauak betetzea;
- Europar Batasunarekin elkarte-hitzarmen bat edukitzea;
- CEFTAko estatu kideekin merkataritza askeko ituna sinatzea.

Mapa honetan CEFTAko gaur egungo kideak horiz agertzen dira eta kide izandakoak urdinez: 2004an, Polonia, Hungaria, Txekia, Eslovakia eta Eslovenia CEFTAtik irten ziren, Europar Batasuneko estatu kide bilakatu zirelako; 2007an, Errumania eta Bulgaria; 2013an Kroazia. Beraz, gaur egun, CEFTAko kide dira Albania, Bosnia-Herzegovina, Ipar Mazedonia, Kosovo, Moldavia, Montenegro eta Serbia.



Iturria: <https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=26941214>

BIBLIOGRAFIA

- Alonso García, R. (2014). *Sistema jurídico de la Unión Europea*. Madrid, Civitas.
- Calonge Velázquez, A. eta Martínez Pérez, E. (2017). *Derecho Básico de la Unión Europea*. Granada, Comares.
- Calvo Hornero, M.A. (2011). *Fundamentos de la Unión Europea*. Madrid, Centro de Estudios Ramón Areces.
- Díez Moreno, F. (2009). *Manual de Derecho de la Unión Europea*. Madrid, Civitas.
- Esparta Soloeta, I. (2010). *Europar Batasunerako sarrera eta input-output analisia*. Leioa, Euskararen arloko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena.
- Europar Batasuna (2016). *Versiones consolidadas del Tratado de la Unión Europea y del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea*, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, C 202 (2016ko ekainaren 7).
- Europar Batzordea (2018). *Europar Batasuneko Zuzenbidearen ABC-a*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Europar Batzordea (2018). *Europar Batasuna. Zer da eta zer egiten du?* Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (2010). *Lisboako Tratatuak: Tratatuaren bertsio kontsolidatuen testua euskaraz*. Gasteiz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
- Fernández Egea, R. M. eta Fernández Navarrete, D. (2018). *Historia de la UE: de los orígenes al Brexit*. Madrid, Universidad Autónoma.
- Fontaine, P. (2017). *Doce Lecciones sobre Europa*. Luxenburgo, Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegoa.
- García Lupiola, A. (2014). *Ekonomia Garaikidea*. Leioa, Euskararen arloko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena.
- _____(2021). Europar Batasunaren legegintza sistema. *Legebiltzarreko Aldizkaria - LEGAL*, 2: 64-89.



Liñán Noguerras, D. J. eta Mangas Martín, A. (2020). *Instituciones y Derecho de la Unión Europea*. Madril, Tecnos.

López Castillo, A. (2020). *Instituciones y Derecho de la UE*. Valentzia, Tirant Lo Blanch.

Molina Del Pozo, C. F. (2019). *Derecho de la Unión Europea*. Madril, Reus Editorial.

Requena Casanova, M., Urbaneja Cillán, J., Soler García, C., eta Ferrer Lloret, J. (2020). *Introducción al Derecho de la Unión Europea*. Valentzia, Tirant Lo Blanch.

Sánchez Barrueco, M. L. (2015). *Nazioarteko erakundeen eskuliburua: Nazio Batuen Erakundea eta Europar Batasuna*. Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.